



**Iparra-Hegoa
Seguran**



**Erlezain eguna
Zegaman**



SILVIAMIRASCASASAYAS
ODONTOLOGOA

TEL./FAX: 943 88 92 87
SAN INAZIO KALEA, 2
20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)

ODONTOLOGOA



ERABATEKO

GURE INSTALAKUNTZAK ELBARRITUENTZAT

HORTZ

ERABAT EGOKITUAK DAUDE, KLINIKAK SAN

KLINIKA

INAZIO KALE BERTARA EMATEN DUELARIK

INTEGRATUA

Teknologia, profesionaltasuna eta arreta, zerbitzu bakar batean bateratuz, giro goxo batean, zerbitzurik hurbilena eskeiniz, dentistarekiko zure ikuspegia aldatuko dugu.



RPS144/02

Ordiziatik 5 minutura



Olagi

sagardotegia jatetxea

© 943 88 77 26 ALTZAGA



Eguneroko menua

Astelehenetik ostiralera
etxean bezala jateko

7,50 €

Menuan sagardoa txotxetik

Ospakizunak

Jaunartzeak, bataioak,
enpresa bazkariak
2 jangela (100 lagun)

Haurrak jolasteko lekua

Sagardotegia

Sagardoa txotxetik
urte osoan

Bertako sagarrekin
egindako sagardoa

Egunero, astelehen eta astearte
iluntzeetan izan ezik

Goierritarra HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:

Goierritarrak Kultur Elkartea
Dorre-etxea, 1 (Postetxe gainean)

124 posta-kutxa ORDIZIA

Tfnoa: 943 88 96 12

Faxa: 943 88 27 19

Posta elektronikoa:

goierritarra@topagunea.com

Zuzendaria: Loinaz Agirre

Erredakzioa: Iñaki Gurrutxaga

Maketazioa: Mikel Albisu

Publizitatea: Argider Mujika

Zenbaki honetako kronista eta

kolaboratzaileak: Joseba Telleria, Aitor Calvillo, Xabier Urteaga, Nekane Altuna, Edurne Albizu, Edurne Soraluze, Agurtzane Bikuña, Aitor Tello, Aitziber Murua, Aimar Maiz eta Joxan Auzmendi.

Fotokonposizio eta maketazioa:

Goierritarra

Inprimaketa: Gertu (Zubillaga 9. Oñati)

Tirada: 7.000 ale

SSN: 1132-0907


Lege gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

GOIERRITARRAK ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Eusko Jaularitzako
Kultura Sailak,
Gipuzkoako Foru Aldundiak
eta
GOIERRIKO UDALEK
diruz lagundutako
aldizkaria



'Ateak zabalik' jardunaldiak antolatu ditu Atzegik *Txolarte elkarteetan biltzeko deia egin dute*

Adimen urritasuneko gaitzaren inguruan lan egiteko orain 40 urte baino gehiago Gipuzkoan sortu zen Atzegi elkarteak 2003ko kanpaina abian jarri du jada. 'Kalean ere etxean bezalaxe' izena jarri diote aurtengo kanpainari: "halako gaixotasunak dituzten senide asko ditugu gure artean, eta gure helburua eritasun hori dutenak kalean eta gizarte ekintzetan parte sentitu behar dutela aldarrikatzea da", dio Atzegi elkarteak Goierri mailako arduradunak.

Helburu hori aintzat hartuta, eta horrek sortzen dituen beharrak ahaztu gabe, deialdi berezia egin dute Atzegi elkarteak kideek martxoaren 29rako antolatu duten 'Ateak zabalik' jardunaldietarako.

"Begirale boluntario gazteak behar ditugu larunbatetan ordu batzuetarako, adimen urritasuna duten pertsonen gizarte berri honetan parte senti daitezen laguntzeko", adierazi du Atzegi elkarteak kideak.

Martxoaren 29an, Txolarten

Hala, martxoaren 29an Beasaingo Txolarte elkarteak egingo den 'Ateak zabalik' jardunaldietara agertzeko deia egin du Atzegik. Goizeko 11:00etatik 13:00era egongo dira zabalik Oriamendi kaleko 15. zenbakian dagoen elkartearen ateak, eta han, bertan aritzen diren boluntarioek aurkeztuko dizkiete bertaratuei ekimen guztien berri.

Goierritarra Goierrikan kanpo jaso nahi dutenenentzat, posta gastuak ordaintzeko tarifak:

Hego Euskal Herria eta Espainia:
Ipar Euskal Herria eta Europa:
Europaz kanpo:

urtean 12 euro
urtean 24 euro
urtean 36 euro



Txema Auzmendi: "Gure bidea ongi egiten ari garela baieztatzen du operazio honek"

Gaur hamabost egun bete dira Txema Auzmendi ordiziarra Soto del Real espetxetik irten zela. Auzmendi Egunkariaren aurkako polizia operazioan atxilotu zuen Guardia Zibilak, eta Juan del Olmo epailearen aurrean konfidantzako abokatuarekin deklaratu ondoren aske geratu zen.

Zer moduz?

Oso ondo. Pasatako egun haiek txarrak, gogorak eta infernu hitzarekin laburbildu ditudanak hortxe daude. Pasatako gauza guztiak idatzi egin ditut, eta ikaragarri lagundu dit horrek. Barruko zikina ateratzen lagundu dit, eta ez dut inolako eragozpenik izan lo egiteko. Nik, egia esan, ez dut besteei bezalako tratu txarrik jaso.

Operazio hark erabat ezustean harrapatu zintuen.

Guardia Zibilek esaten zidaten: "Y ha usted le ha sorprendido? Eta nik esaten nien: "Sorprendido no, me he quedado pasmado. Por esto no creía yo que me podían detener como colabo-

rador o miembro de ETA". Autoan azaltzen da hori, eta ez dira txantxetarako hitzak. Gainera egin zuten moduan, erabilitako polizia guztiak...

Kartzelatik atera eta gero, nola ikusten duzu zure burua?

Lehendabizi, nik uste, gure bidean konfirmatu egin gaituela honek guztiak. Alegia, Euskal Herriak herri nortasuna baldin badu, eta hori zaindu egin nahi badugu, euskarak aurrera egin behar du. Herri bat gara, nazio bat, eta orduan, ditugun ezaugarriak ez ditugu galdu behar, eta horren alde egin behar dugu. Nire kontzientzia oso lasai dago. Gu euskaldunak gara, izan nahi dugu, herri bat gara, autodeterminazio eskubidea herria garenez badugu... Nik uste dut eraso hau konfirmazio bat izan dela, eta egunkari bat egunero euskaraz etxean jasotzeak bide hori berretsi egiten duela. Egunkaria Euskal Herriko herrialde guztietara iristen da, dendetan dago salgai eta erakusgai, eta horrek erakusten digu eta gogorarazten digu badagoela herri bat.

Zenbait ahotsek diote proiektu berriak lehengoak baino pluralagoa izan behar duela. Ba al da Euskal Herrian Egunkaria baino egunkari pluralagorik?

Plurala nik uste izan dela. Nik uste dut erakutsi duela egunkariak 13 urte hauetan bidea egiten badakiela, profesional talde bat badagoela, euskara txukuna erabiltzen duela... Hori guztia zabalago eta pluralago egin daitekeela, eta euskara maila hobetu eta euskara zuzentzaile gehiago sar daitezkeela egia da, eta onerako diren aldaketa guztiak eman behar dira. Baina hala ere, badago errealitate bat eta profesional talde bat egunkaria egiten badakiela erakutsi duena, eta nire ustez, haiekin konpondu behar dugu.

Soto del Real espetxean egon zara hiru astez. Zer moduz han zeuden euskal presoekin?

Oso harrera ona egin zidaten espetxera sartu nintzenean, eta alderdi hortatik esan behar dut oso babestuta sentitu naizela. Tartean Jon Gorrotxategi beasaindarra zegoen, eta guztiekin oso ondo, oso jatorrak denak. Bestela, euskarazko eskolak ematen aritu naiz, eta baita alemanierazkoak ere. Etxean eta kalean egotea da hoberena, baina espetxeko egonaldia niretzako bizi-tzaren irakaspen berri bat izan da.



MUJIKÁ
LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19

☎ 943 88 11 94

ORDIZIA

Apirilaren 8tik

ARAMAKO TABERNA

berriro zabalik



Eguneroko menuak
Asteburuko menuak
Kaxuelitak
Pintxoak
Plater konbinatuak
Udako terraza
Toki lasai eta giro euskalduna

Lurra berotzen (I)



Eusko Jaurlaritzak Lareon txabola turistikoak egitea posible dela uste du

Eusko Jaurlaritzako Bioaniztasunaren zuzendaritzak begi onez ikusten du Lareo inguruan txabola turistikoak egiteko dagoen egitasmoa, Aralarko Parke Naturalaren barnean. Jaurlaritzak Ataungo Udalaren babesa eta bultzada du proiektu hau aurrera eramateko garaian. Iaz esku artean izan zuten txostenean horrelako proiektuak herri inguruan egin behar zirela esaten zen, eta horrez gain "ingurumena-
rentzat arriskutsua" izan zitekeela.

Egun, txosten berri bat daukate esku artean, eta honek Ordenazio Plana aldatzea proposatzen du, Ataungo Udalaren eskaerak aurrera egin dezan. Hala ere, muga batzuk badaude. Marumendi inguruan egin nahi dituzten txabolak egin ahal izateko lur horiek berkalifikatu egin behar dira, eta erabilera hori eman ahal izateko egokitu.

Eraikuntzei dagokionez, zenbait baldintza ere jasotzen ditu txostenak. Gehienara ere 25 txabola berri egingo dira (30 metro koadroko 12, 40 metro koadroko 8 eta 60 metro koadroko 5) 145 laguntzako lekua eskainiko dutenak. Ataungo Udalak hasieran gehiago egitea planteatzen zuen. Horrez gain, Erremedio ingurua erabilpen turistikorako egokitzea aurreikusten du txostenak, eta Imatzenea inguruan ur minerala botiletan sartzeko gune bat sortzea.

Aitor Garmendia txirrindulariaren Coast taldea suspenditu egin zuen UCIk

Aitor Garmendia txirrindulari itsasondoarraren Coast talde alemaniarra suspenditu egin zuen UCI elkarteak, eginbehar finantzieroak ez zituelako behar bezala betetzen. Txirrindulariei soldata ordaintzen ez zitelako, alegia. Hori dela eta, Garmendiak eta haren taldekideek ezin izan dute hainbat probetan parte hartu, eta horrez gain taldeak dirua zor die. Suspentsioa altxatu eta aste honetan Katalunaiako As-tean parte hartu du itsasondoarrak. Aitor Garmendiaren arabera, hau da profesionaletan korrituko duen azken denboraldia, eta oraindik ere Tourrean paper polita egiteko asmoa du.



Mikel Gaztañagak bikain hasi du denboraldia, karrerak irabaziz

Baque-Labarca2 taldean aritzen Mikel Gaztañaga txirrindulari itsasondoarrak bikain ekin dio denboraldiari. 23 urteko azpiko kategorian lehiatzen da Gaztañaga, eta martxoaren 16an Astilleron (Kantabria) jokatu zen proba irabazi zuen esprintean. Ibilbideko 127 kilometroak osatzeko bi ordu eta 56 minutu behar izan zituen itsasondoarrak.

Bi goierritar ariko dira Debarrena taldearekin afizionatuetan

Zuhaitz Ayuso itsasondoarra eta Beñat Muriel zaldibiarra elkarrekin arituko dira aurtien Debarrena taldearekin afizionatu mailan. Ayusok lehen denboraldia izango du Debarrena taldearekin eta Murielek kontratua berritu du aurtien.



**Abokatuak
Enpresen
asesoria eta
gestioa**

e txekin

www.txekin.net

Etxebizitzaren salmenta:

**Legoirreta
Beasain
Orendain**

Tel/Faxa: 943 162 393 e.posta: zuzenki@euskalnet .net Elosegi, 16 LAZKAO



**KAMIXETA ESTANPAZIOA
FOTOKOPIAK KOLORETAN**

☎ 943 02 73 55 Faxa: 943 02 79 39
San Inazio, 5 BEASAIN

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



kutxa
zuri esker

gizarte ekintza

M- 30: Naziotasun Eguna Guztiok Ibarrra!

Garai latzak bizi ditugu inondik inora gure herri zahar honetan. Euskal herritarrok arazo larri baten aurrean gaude. Urte luzetan zehar gu menderatzeko indarka dabilenak, azken estokada eman nahi digu euskaldunoi.

Ez dugu inor aspertu nahi, Euskal Herriak eta euskal herritarrok jasaten ditugun erasoak zerrendatuz. Jakina baita gure herriaren historia, zapalkuntzaz zapalkuntza gogoratzen dela, askotan urteak ere eraso konkretuen erreferentziak gogoratzen ditugu.

Euskaldunon izateari eta loratzeari tinko helduz, aurrea jotzeko garaia heldu da. Euskal herritarrok Euskal Herria eraikitzeke tresnak badiugu aunitz. Gogor ekin behar diogu eraikuntzaren lanari, gogor ekin lurra lantzeari.

Gaur egun Euskal Herria bizirik mantenduko badugu, aukera bakarra dugu esku artean. Euskal Herria bizi behar dugu, euskal herritar gisa bizi behar dugu. Soilik horrela lortuko baitugu gure herri zahar honen geroa bermatzea. Kanean, lanean, etxean, ikastetxean, lagunekin, noski baietz! Tresnak badiugu. Hor dugu 125.000 euskaldunek Udalbiltzari eginiko eskaeren erantzuna. EHNA kalean da! Euskal Herriko Naziotasun Aitormena egiteko garaia heldu da. Gure esku dago etorkizuna. Bizi gaitezen euskal herritar gisa. Bizi dezagun Euskal Herria bakean eta askatasunean.

Hauxe da aurtengoan eta lehenengoz antolaturiko Naziotasun Egunaren ardatza. Euskal herritar gisa bizita soilik lortuko baitugu Euskal Herria nazio askea izatea.

Euskal Herriko zazpi lurraldeetako biztanleok, euskaldunak gara. Euskararen herrian jaio eta hezitako euskaldunak; hain zuzen menderetan zehar, zapalduak, irainduak eta zigortuak izaten ari garen euskal herritarrok. Menderetan zehar gure herri izatea ukatu arren, Aitaren etxea zutik eta Amaren sua pizturik izateko lan eta borroka egin dugun herritarrok. Inbadituak bai, baina menperatuak izan ez garen herritarrok. Euskaldunak.

Euskal Herriaren bihotzean bizi garen goierritarrok aukera paregabea dugu gure izateari ekarpen garrantzitsu bat egiteko. Has gaitezen Euskal Herria bizitzen.

Egin dezagun EHNA, gure herri zahar honi aitortzeko bere izatea errespetu osoz. Euskal herritarrok baikara, onar diezaiogun Euskal Herriari nazio izateko duen eskubidea eta beharra.

Erabil dezagun EHNA, gu euskal herritarrok gara. Euskal Herria maite eta errespetatzen dugunok zergatik erabili behar dugu espainiar edota frantziar naziotasun agiria?

Bizi gaitezen euskal herritar gisa. Soilik horrela lortuko dugu gure arbasoek bizirik mantendu duten Euskal Herria ez hiltzea. Gure herri zahar hau hiltzen uzteko bezain odol galduak ez baikara.

Euskal Herriak konpromisoak behar ditu. Euskal Herriko Naziotasun Aitormena konpromiso eta aitortza txiki bat da gure herriarentzat, baina oso garrantzitsua. Martxoaren 30ean Ibarrra Naziotasun Eguna ospatuko da Euskal Herriak nazio izateko duen eskubidearen aldarria eginaz. Apirilaren 20an berri, Aberri Eguna dugu urtero bezala, eta aurtengoa, Euskal Herriak duen lehen instituzio nazionalak, Udalbiltzak alegia, euskaldunontzat oso esanguratsu den Amaierara biltzeko deiarekin bat egiten dugu Bai Euskal Herriari herri ekimeneko kideok.

Konpromiso txikiak biltuz osatzen dugu Euskal Herria. EHNA egin, erabili eta bizi, euskal herritarrok garelako.

Mikel Luloaga Aranburu (Zaldibia)

Liburu baten arrastoan

Otsailaren 7an aurkeztu zen Seguran, hiribilduaren historiari ari den 'Segura historian zehar liburua'. Hogeita hamar lankidetatik gora izan ditu liburuak. Lerro hauen bidez lehenik eskerrak eman nahi dizkiet berri ere lankide horiei, segurarroi eta goierritarroi ere eman dizkiguten albisteengatik.

Jasotako laguntza guztien ere, honelako liburu batekin hazi eta hobetuz joan behar du, kaleratuta gero ere. Horregatik idazten ditut lerro hauek, gure honek ere hobetuz aurrera egin dezan.

Liburua irakurlearen eskuetan dagoen honetan, aukera ona da lan horretan ibili garenontzat, Segurako eta Goierriko jakitunen iritzia eta kritikak jasotzeko, izan ere, egindakoan hainbat gauza eta berri zuzendu, hobetu eta osa daitekeela uste baitut.

Segura historian zehar batez ere artxiboetako paper zaharretatik egindako liburua da, herriko eta eskualdeko oroimen pertsonal bizirik baino gehiago. Honelako lanak, gainera, denbora mugatu batean burutu behar izaten dira, eta beti geratzen da han eta hemen puntaren bat behar bezala lotu gabe.

Lerro labur hauen bidez, irakurle eta jakitun interesatuen ohar, kritika eta hobekuntzak ongi etorriak izango direla adierazi nahi dut. Oharrak Segurako Udaleko kultur batzorde edo teknikariari bidal diezazkieke zue.

Autore eta liburu-egileok kaleratzen ditugun lanetako ale bat beti gordetzen dugu gure ondoan, zuzenketa eta hobekuntzak bilduz joateko. Batzuetan, bigarren argitaraldian sartzen dira horrelako langai berriak, eta, bigarren argitaraldirik ez denetan, argitalpen-eranskin gisara eman daiteke bildutako hobekuntzen berri, gure ondokoan mesedetan.

Hauxe da 'Segura historian zehar' liburuan ere egin nahi duguna. Gure laguntzaila berri guztioi, bada, aldeztu aurretik nire eskerrak. Mila esker.

Joseba Intxausti (Segura)



LEIAR
KRISTALDEGIA

ERAKUSKETA:
Ezkiaga Pasealekua z/g ☎ 943 88 88 24

BILTEGIA:
Salbatore Industrialdea ☎ 943 88 60 70
BEASAIN

Aholkularitza


ASEPLAN

Abokautak - Ekonomilariak

Tel.: 943 887 129

Oriamendi Kalea 15, behea **BEASAIN**

- ✓ Enpresen asesoria eta gestioa
- ✓ Etxebizitza salerosketa
- ✓ Etxeko jabekideen administrazio-lanak



Lurra berotzen (I)

Albiste kezkagarriak

Gizakiak betidanik menderatu nahi izan du eguraldia. Baina ziur egon gaitezke helburu hori ez duela sekula lortuko. Hala ere, esan beharra dago, eguraldia ez menderatu arren, horren gain aldaketak eragitea iritsi dela gizakia, hori bai, "nahi gabe". Agian laster konturatuko gara jada amets gaizto batean murgiltzen hasita gaudela.

Nazio Batuen Erakundeak eta Munduko Meteorologia Erakundeak Aldaketa Klimatika ebaluatzen sortuta duen Gobernuarteko Aditu Taldeak (IPCC agentzia) egindako azken txostenean albiste kezkagarriak ageri dira.

Aditu Talde horrek zenbait aldaketa behatu ditu mundu mailako kliman. Lurraren batzbesteko tenperatura globala 0,6 gradu igo da XX. mendean eta 90eko hamarkada izan da azken mendeko beroena. Ipar hemisferioan tenperatura ez da azken mila urtetako mende batean XX. mendean hainbat igo. 1960z geroztik elurren azalera %10 gutxitu da eta mendiko glaziarrek erretiratzeko ari dira. Itsasoa 0,1-0,2 metro igo da azken mendean eta berotzen ari da. Prezipitazioak %0,5-1 gehitu dira XX. mendeko hamarkada bakoitzean ipar hemisferioko latitude ertain eta altuetan, prezipitazio horiek geroz eta uholdetsuagoak dira eta zeruan lehen baino laino gehiago dago. 1950z geroztik muturreko tenperatura minimoen maiztasunak behera egin du. El Niño fenomenoak sarriago ematen da eta iraunkorragoa eta biziagoa da orain. Asia eta Afrikako zenbait aldetako lehorrekin handiagoak eta maizago ematen dira.

" Azken 50 urteetan gertatutako Lurraren berokuntza giza jardueren esker eman da."



Jakina denez, giza-jardueren ondorioz, batez ere ikatza eta petrolioaren eratorrien errekuntzaz eta deforestazioak sortutako negutegi-efektuaren gasen kontzentrazioek gora egin dute. Karbono dioxidoaren maila 1750az geroztik %31 igo da. Azken 420.000 urte hauetan ez da egon orain hainbat karbono dioxido airean eta seguruenik ezta ere azken 20 milioi urtetan.

Azken mendean eguzki-erradiazioaren intentsitatearen aldaketak oso eskasak izan dira eta bolkanen aktibitatea ere baxua. IPCCaren txostenaren arabera "orain ebidentzia berri eta indartsuagoak daude azken 50 urteetan gertatutako Lurraren berokuntza giza jardueren esker eman denaren alde".

XXI. mendeko klimari buruz esan daiteke aipatutako aldaketak areagotzen joango direla eta noski tenperatura globalak gora egingo duela. Horrek zera ekarriko du mundu mailan: uholde eta lehorten gehiago, biodibertsitatearen galera, nekazar-ekoizpena gutxitzea alde tropikal eta subtropikaletan, ur gutxiago zona subtropikaletan, zenbait infekzio-gaixotasunek gora egitea eta beroarekiko estresaz heriotz gehiago. Europari dagokionez, hego eta ekialdean lehorten handiagoak espero dira, mendietako glaziarrek eta tundra zati handiak desagertzea, uholde arrisku handiagoa eta ondorioz lurzoruen higadurak gora egitea eta hezegune asko galtzea, nekazar-produktibitatea gutxitzea iparraldean eta jaistea hego eta ekialdean, eta zenbait espezieen bizi iraupena arriskuan jartzea beren habitataz galduko direlako.

Hau ote da gerorako nahi duguna? Horrela ez bada, nolatan gaude hain lasai, besoak tolestuta, arazoari aurre egiteko neurriak martxan jarri gabe?

Joxan Auzmendi

LIBURUA

✓ **Klima Aldaketa.** Ingurumen Estrategiaren Agiria Saila 15.zk., urtarrila 2003. Eusko Jaurlaritzak argitaratua. Ingurumen arazo ikaragarri honen inguruko xehetasun asko aurkituko dituz bertan irakurleak: zergatiak, ondorioak, komunitate zientifikoak emandako aukeren azalpenak, etab.

JAKIN BEHARREKOA

✓ **Berogailua itzali etxe-ko tenperatura 20 gradura iritsitakoan,** izan ere, hori hartzen baita neutraltasun termikoko tenperatura bezala. Bestela esanda, tenperatura horretan arropak jantzita gelditu dagoen pertsona baten gorputzak galtzen duen hainbat bero hartzen du ingurutik.

✓ **Zure kotxea erabiltzerik behartuta bazaude** eta erregai kontsumoa gutxitu nahi baduzu, autoaren mantenimendua ongi egin da eduki, ez azeleratu bortsiki, geldialdi luzeetan motorra itzali eta ahal duzun gutxietan kotxea konpartitu.

✓ **Bonbila arrunt batek** kontsumitzen duen elektrizitatearen %10 aprobetxatzen du argia emateko; beste %90 bero eran galtzen du. Horregatik, hobe da kontsumo txikiko bonbilaz ordeztzea, hauek garestiagoak diren arren, bost aldiz gutxiago kontsumitzen dute eta hamar aldiz gehiago irauten baitute.

✓ **Basoan erorita usteltzen dagoen zuhaitzak** zutik zegoenean hainbeste bizitza eduki dezake: zizareak, akaroak, kakalardoak eta ondoko bezala egurretik bizi diren beste espezie asko.

Landar Lan taldeak egindako orrialdea

Taldean parte hartu edo gairen bat aportatu nahi baduzu: ☎ 943 16 12 44

Joxe Albizu herritarra omenduko dute Zegamako Erlezain Egunean

"Garrantzitsuena erlea ondo tratatzea da, eta aldaketetan ahalik eta erle gutxien hiltzea"

Apirilaren 6an ospatuko da Zegaman Erlezain Eguneko edizio berri bat. Gipuzkoako V. Ezti eta II. Gozogintza lehiaketa jokatu dira, eta egunean zehar beste hainbat ekitaldi izango dira. Horrez gain, erlearen mundua gertu gertutik bizi izan duen norbait omendu ohi dute urtero, eta aurten Astigarreta baserriko Joxe Albizu herritarrari dagokio ohore hori jasotzea. Erlezaintzaren inguruko jakintzak, teknikak eta pasadizoak hamaika ditu Albizuk.

Zure etxean ba al zen erlearekin ibiltzen zenik garai hartan?

Bai aitona eta aita ibiltzen ziren erleekin. Nire aitona Idiazabalgo Uazalta baserrian bizi zen eta beti ezagutu nuen erlea han. Gu berriz, Astigarretan bizi ginen eta gure etxean ere bazeuden antigualako erlauntza horiek baserriaren kontra. Gaur egun, zazpi senideetatik nik eta Villabonan bizi den anaiak jarraitzen dugu afizio honekin.

Zein zen erlea edukitzeko ohiko kokalekua?

Normalean, bizi zinen baserriaren alboan egoten ziren. Askotan teilatupeko estalpearen batean jartzen ziren edota etxe inguruan; erletegi bat izaten zen estalpea eginda.

Zein enbor mota erabiltzen zenu-



ten erlauntzak egiteko?

Normalean, haritza eta gaztaina. Nire aitonak esan ohi zidan, gerezia zela enbor motarik hoberena erlauntza egiteko, erretxina gozoa izaten duelako. Gogoan dut, behin aitonak 11 gereziondo nola bota zituen gero erlauntzak egiteko. Nik 11 urte nituen eta biok aritu ginen eskuerraz gereziondoak ebaki, erditik pitzatu eta gero barrena hustutzen. Horretarako burdinezko erreminta bat zuen, eta gaur egun nik ere badaukat.

Ba al duzu, zure aitonaren beste erremintarik?

Aitonarena ez, baina aitarena bai: erle-zorroa eta erle-burnia. Erle-zorroa erlekumea biltzeko izaten da, eta aitak urkiarekin egin zuena da oraindik erabiltzen dudana. Nire aitonak, gereziondoarekin egindakoa erabiltzen zuen, baina urteen poderioz hautsi egin zen eta aitak urkiarekin egin zuen berria. Nire aita erlezorroa egiten ari

zenean, gerra aurretik, pitza ez zedin, garo artean edukitzen zuen enborra lehortzen, babesean, haizeak jo gabe. Ni berriz, mutikoa izan, eta egunero joaten nintzen enborra begiratzera; aitona demanda batean aritzen zen begira eta begira ibiltzen nintzelako.

Eztia nola ateratzen zenuten?

Eztia ateratzeko lanabesa burni-kakoa izaten zen. Burni honek bi punta edukitzen zituen. Alde batean, markatsa enborretik libratzeko ebakitzeko alderdia zuenak, eta alde honekin poliki poliki markatsa buelta guztian libratu eta gero, beste aldeko kakoa-ekin tira egiten zitzaion markatsari kanpo aldera, eta orduan eskutan hartzen zen ez-tiz beteriko markatsa. Baina lan hauetan hasi aurretik, zar-tagin zahar batean ganadu ximaur lehorrarekin kea egiten genuen, eta putz eginez erlauntza barrura sartzen genuen kea. Orduan, erlea erretiratutako markatsa ateratzen

joaten ginen, erlerik galdu gabe ahal zen neurrian.

Maskara eta esku zorrerik erabiltzen al zenuten?

Ez, txaketa zahar bar jartzen zen burutik behera aurpegia eta burua pixka bat babesteko. Heldutakoak helduta eta kitto!

Ze garaitan ateratzen zen ezti?

San Migeletako hilberan, era horretara erlekumea ez zen galtzen.

Eztia atera ondoren nola egiten zenuten eztiaren eta argizariaren banaketa eta haven garbiketa?

Eztia eta argizaria banatzea eskuz egiten zen. Markats zati bat hartu bi eskuen artean eta estu-estu eginez, behatz tartetatik ateratzen zen ezti balde batera. Gero baldera eroritako ezti horri argizari zati txikiak kentzeko, "bañomarian" pixka-pixka bat epeldu eta zapi garbi batekin ezti pasatzen zen, estu-estu egin da.

Eskuartearen geratutako argizarizko "pilota" horiek berriz, balde batean egosten ziren eta irakin puntura iritsita-koan zaku itxi batera bota eta bi makilekin bihurri-bihurri eginez, zaku zuluetatik argizari garbia ateratzen zen azpian jarritako baldera batera. Balde honetan ur hotza egiten zen eta argizaria bertara erori ahala, likidotik solido izatera pasatzen zen. Argizari zakua bihurritzeko bi lagun behar dira, bakoitzak alde batetik elkarki makilak eman eta tar-tean zakua sartu ondoren goitik eusten ari denak zakua bihurritzeko.

Erlekumea bilatutakoan etxera nola eramaten zenuten?

Erle-zorroan sartuta eramaten genuen etxera. Erle-zorroak bi aldeak irekiak izaten zituen, eta erlea aurkitutakoan, alde batean zapi bat jartzen zitzaion erlekumea handik irteten ez zedin eta erlekumea guztiz sartzen zenean, beste aldearekin zapi isten zen. Erlauntza urrutia xamarrean gertatuz gero, ito ere egiten zen erlekumea. Nik gaur egun, alde batean alanbrezko sare bat daukat jarrita; haizea errez sartzen da eta erlerik ezin da atera zulo horietatik; beraz, erlekumea sartzen dudanean, alde batean bakarrik jartzen diot zapia edota plastikozko itxitura.

Badakigu, erlezainok trebeak zaretela erlea manejatzen. Nola sartzen da erlea kaxa batetik bestera?

Niretzat garrantzitsua erlea ongi tratatzea da eta leku batetik besterako aldaketa honetan ahalik eta erle gutxien akabatzea. Gogoan dut, behin ikastaro batera joan nintzela eta han, erlauntza zaharretik berrira erlea pasatzeko adibide praktikoa egin zutela. Lehenik izugarritzko golpeak eman zizkion erlauntzari erlea ikaratu eta gero elkarrengana biltzeko baina, kolpe haien ondorioz, markatsa eta ezti asko erori zen erlauntza barrunean eta erle asko ito zen ezti artean. Nik, erlea aldatzerakoan, kea erabiltzen dut; hauspoz kea botatutakoan erlea erreginarengana juntatzen da. Orduan, erlerik gabe geratu diren markatsak atera eta poliki-poliki ezti guztia kendu ondoren, kazo txiki baten bidez erlea hartu eta beste erlauntzara pasatzen dut, eta era horretan gutxiago akabatzen dira.

Erlekumeak biltzen ibili al zara Zegama inguruan?

Erlekume sasoian urtero izaten da deiren bat edo beste erlekumea non dagoen abisatzen dutenak. Zegaman eta inguruko herrietan ere askotan ibili naiz erlekumeak biltzen. Behin, gaztea nintzela, Arriarango apaizak deitu zidan derrepente joateko bere etxera, ganbaran erlea zeukala eta hari ezti ateratzera. Joan nintzen, bada, apaizaren etxera eta erlea teiltatuaren kontra sartuta zegoen. Han nenbela izugarritzko erle pilak heldu zidan bizkarretik eta ia ondoezik nengoen. Apaizak esan zidan neskamea eta hirurok afaldu egin behar genuela eta hala eseri nintzen mahaian. Apaizak baso bat ardo atera zidan, kolpetik edan nuen eta nire burua geroz eta okerrago bilatzen nuen. Hala, kanpoan zegoen harrizko eserleku batean jarri nintzen, apaiza eta neskameari segituan joango nintzela esan nien eta han egon nintzen mareoa pasatu artean; nire artean zera pentsatzen nuen: *"apaiz etxean nagok eta hiltzen banaiz ere zerura joango naiz behintzat"*. 18 urte neuzkan.

Non eduki dituzu erleak?

Soriako Camerosen, Nafarroako hainbat lekutan, Fiteron ere bai, Urdalur, eta etxe inguruan. Ahal dela, goizean eguzkia jotzen den tokia aukeratzen dut, egutera.

Zein ezti mota gustatzen zaizu gehien?

Ilun xamarra. Txillarra pixka bat duena.

Erleen inguruan sinismen ugari dago. Zuk zein daukazu etxean entzuna?

Gure amak esaten zuen, erlea ez zela akabatzen, hil baizik, erleak argizaria egiten zuelako eta argizaria garai hartan arimari argi egiteko erabiltzen zuten.

Erlezain Eguneko egitaraua

Martxoak 31, astelehena:

14:30etan: Erlezaintzari buruzko hitzaldia eta bideo emanaldia, Gipuzkoako Erlezain Elkartearen eskutik, ikasleei zuzenduta, Herriko Eskolan.

Apirilak 3, osteguna:

19:00etan: 'Erlezaintza euskaldunon bizitzan, sinismenean, ohituretan eta mitologian' hitzaldia eskainiko du Xabier Kintana euskaltzainak, Zegamako udaletxean.

Apirilak 5, larunbata:

16:00etan: Ikastaro-hitzaldia: Erleen elikadura eta eztiaren kontserbazioa, erlezainei zuzendua. Zegamako Aitxuri eskolako gimnasioan.

19:00etan: Ezti dastaketa praktikoa (edonorentzat irekia). Hizlari eta irakasle: Antonio Gomez Pajuelo (mundu mailan erlezain aditu eta ospetsua). Zegamako Aitxuri eskolan.

Apirilak 6, igandea: Azoka berezia

10:00etan: Txistulariekin kalejra goizean zehar.

10:30etan: Jai hasiera. Gozogintza erakusketa-txapelketa.

11:00etan: Gipuzkoako V. ezti lehiaketaren hasiera (bailarako txapelketetan sarituak aurkez daitezke). Lorebazarren lehiaketan parte hartu nahi dutenek izena eman beharko dute egun berean lehiaketa hasi aurretik.

12:15etan: Erle durrunbaren hasiera Aseginolaza Anaia kaletik.

12:30etan: Durrumba amaiera eta erlekumearen bilketa.

12:45etan: Urteko erlezaina omenduko da. Aurten Joxe Albi zu zegamarrari dagokio.

12:45etan: Argazki lehiaketaren sari banaketa.

13:00etan: Gozogintza eta ezti lehiaketetako sari banaketa.

Jarraian: gozoki eta ezti dastaketa popularra egingo da. Aurkeztu diren eskualdeko ezti finalistak dastatzeko aukera. Gipuzkoako Erlezain Elkartearen eztiak dohainik banatuko dira, "Kaiku" jogurtekin edo bertako ogiaz lagunduta.

14:15etan: Bazkari herrikoia, Herriko Ostatuan. Menuak 20 euro balio du. Nahi duenak Zegamako udaletxean eman beharko du izena martxoaren 30a baino lehen (943801351). Bertan erlezain ekipoa zozketatuko da.

Eguna animatuz beste zenbait jarduera osagarri izango dira: Produktu ekologikoak, senda belarrak, ezti, argizaria, propoleoa saltzen duten hainbat postu, talogileak, herritarren eta herriko elkarten postuak, Gipuzkoako Erlezain Elkartearen informazio gunea...

Horiez gain, Erlearen munduan erabiltzen diren tresnak erakutsi eta bertan erosteko aukera egongo da: erlauntzak, auspook, espatulak, estraktoreak, mozorroak.

Erleak zuzenean ikusteko parada ere izango da. Jendearen jakinmina asetu asmoz, kristalezko kaxa antzeko batzuk erabiliz, erleek erlauntzaren barruan izaten duten bizitza ikusi ahal izango da.

Fernando Lertxundi lan bertikalak egiten aritzen da han eta hemen

"Gizartea ez dago ohituta jendea sokatik zintzilik lanean ikustera"

Hamabi hamahiru urte badira Fernando Lertxundi zumaiaarra lan bertikalak egiten aritzen dela. Orain bi urte eta erdi Ataungo Aiara etorri zen bizitzera, eta urte eta gehio bada 'Lanber' enpresa sortu zuela. Lauzpabost lagun aritu ohi dira bajanteak eta kanaloiak jarri eta etxaurretako paretak txukuntzen, betiere, sokatik zintzilik. Fernandok azaldu dizkigu Goierrin hain ezaguna ez den lanbide honen nondik norakoak.

Nolatan zumaia bat Ataungo Aian?

Zumaiaetik Donostiara joan nintzen. Handik Frantziara eta Frantziatik Ataungo Aiara. Askoz ere gusturago sentitzen naiz mendi inguruan hondartza bazterrean baino. Batzuetan zaila izaten da horrelako inguru txikiatara ohitzea, baina gustura nago.

Eta zer iritzi dute Aiako baserri-tarrek zure lanbideaz?

Jendeak ezagutzen ez duenez, gauza kurioso bat bezala ikusten du. Harrituta begiratzten dizute, eta konfidantza gutxi erakusten dute. Baina beno, denbora kontua dela iruditzen zait.

Zer lan mota egiten duzue?

Kanaloiak eta bajanteak jarri, eta fatxada margoketak eta konponketak egiten ditugu batez ere. Kristalera handiak ere garbitzen ditugu, barruko patioak txukundu... Aukera baldin badaukagu aldamioe-



kin fatxada handi batean sartzeko, sartu egiten gara. Teilatueta ere aritzen gara konponketak egiten: txapuza bat hemen, tximini bat han, itukin bat beste aldean. Teilatu berriak ere egiten ditugu, eta luzeroak ere bai. Egindako handiena 350 metroko luzero bat izan zen.

Jendearen aldetik zein izaten duzue eskaririk handiena?

Orain dela gutxi izandako haize bolada dela medio, teilatuak konpontzen ari gara, baita fatxadak ere. Fatxadetan margoketa lanak egiten ditugu batik bat, eta prezio aldetik alde nabarmena dago batetik bestera, guk egiten dugun moduan oso azkar egiten baita lan hori. Aldamiorik

ez dugu behar izaten, eta horrek asko merketzen du aurrekontua. Guk kontuan hartu beharrekoa mantenimendua da; gure sokak eta arnesak maiz aldatzen ibili behar izaten baitugu. Iaz mila metro soka erosiko genuen.

Nondik zintzilikatzen zarete?

Aleroen azpiko aldean egoten diren hormigoizko paretetatik lotzen gara. Guretzat oso inportantea izaten da bakoitzak bi soka edukitzea. Gainera guztiok sokekin komunikatuta egoten gara, badaezpada ere.

Nola jakin zenuen lan egiteko modu honen berri?

Orain dela hamabi hamahiru urte hasi nintzen ni lan haue-

tan. Donostian bi hiru urte egin nituen, eta gero Frantziara joan nintzen. Han aspalditik ibiltzen ziren modu honetan lanean. Askoz ere aurreratuagoak daude, bai araudiaren aldetik, baita lana egiteko moduan ere. Kristoren aldea dago! Gainera, lan hau oso ondo ikusita dago eta onartua dago Frantziako gizartean.

Kaleko jendeak nola ikusten du zuen lana?

Jendearen kezkarik handiena seguritatea da, baina nire ustez ohitura falta da jendeak duen arazorik handiena, hau da, ez dagoela ohituta halakoak ikustea. Lana oso eroso da. Guk aulki antzeko bat izaten dugu, eta eserita egin ohi dugu lan.

Zer jakin beharra dago lan bertikaletan aritzeko?

Garrantzitsuena sistema ondo ezagutzea da. Gehienok eskalatzaileak gara, baina beste edozeinek ere egin dezake lan hau. Kontua da egin beharreko mugimenduak ondo ikastea.

Lan aldetik zer moduz?

Orain lanik gehien Goierrin daukagu, Beasain, Ordizia eta Lazkaon, batez ere. Gainera, aspaldi hontan, lan normal asko atera zaigu: teila batzuk aldatzea, kanaloiak aldatzea... Ezberdintasuna da gu lotuta ibiltzen garela. Hala ere, lanik gehien hiriburuetan izaten dugu, han baitaude eraikinik altuenak. Sokarekin lotuta ibiltzeko lanak hirugarren solairutik gorakoak izaten dira normalean.

korrika



korrika

herri bat geroa lantzen

badator

*Inoiz baino gehiago, EUSKARA bizi dadin,
bizi gaitezen EUSKARAZ*

Altzagako Udala

Aramako Udala

Ataungo Udala

Beasaingo Udala

Ezkio-Itsasoko Udala

Gabiriako Udala

Gaintzako Udala

Idiazabalgo Udala

Itsasondoko Udala

Lazkaoko Udala

Mutiloako Udala

Olaberriako Udala

Ordiziako Udala

Ormaiztegiko Udala

Segurako Udala

Zaldibiako Udala

Zegamako Udala


Zeraingo Udala

APIRILAK 6

KORRIKA GOIERRIN

Ibilbide eta
ordutegia

Parte har ezazu!





ITURGINTZA - KALEFAZIOA - GASA
BAINU ETA SUKALDEKO INSTALAKUNTZAK
ETXEBIZITZEKO AIRE EGOKITUAK
BERRIKUNTZA LANAK
GREMIO GUZTIEN ARDURA



SUKALDEKO ETA
BAINUKO ALTZARIAK



BULEGOAK-LANTEGIA
USABAL, 11-A
TOLOSA
Tel.: 943 672 620

POLIURETANOZKO LEIHOAK



ERAKUSKETAK:
SAN FRANTZISKO, 10
TOLOSA
Tel.: 943 653 307

 **orkli, s.coop.**



**Kalefazio eta ur beroarentzat diren erregulazio,
segurtasun eta kontrol osagaiak**

ORKLI Koop. E. - 20240 ORDIZIA (Gipuzkoa)
Tfnoa.: (943) 80 50 30 Telex: 38415 ORKLI, e - Faxe: (943) 16 08 23

Apirilaren 10erako hainbat boluntario bildu nahi ditu Sasietak

Bakoitzak bere etxean 'konpost'-a egiteko esperientzia pilotua

Etxeetan sortzen diren hondakin organikoetatik konposta lortzeko makinak Goierriko hainbat etxetan jarri nahi ditu Sasietak. Asmoaren berri Enrike Enparantza Sasietako Ingurumen teknikariak eman digu.

Zer da 'konpost'-a?

Zaborretan dagoen materia organikoa eraldatze prozesu natural baten ondoren ongarri bihurtzen da eta honi konpost deitzen zaio. 'Konpost' honek lurra ondu eta gozatu egiten du; beraz, baratzetan, lorategietan, belardietan eta horrelakoetan erabiltzeko oso egokia da. Adibidez, gure eskualdeko herrietako udal lorategietan asko erabiltzen da landareak aldatzen diren garrian.

Eta nola egiten da?

Etxean sortzen diren barazki hondarrak, fruituak, lorategiko kimaketa hondarrak, belarrak eta bestelako materia organikoa konpostadore batean gordetzen dira. Konpostadore honetan aireztapen, hezetasun eta tenperatura egoki batzuk lortzen dira materia hori eraldatu dadin.

Zertan datza Sasietak egin behar duen esperientzia berriak?

Sasietak boluntario batzuk bilatu nahi ditu esperientzia hau aurrera eramateko. Kasu honetan Sasietak ez du bilketa berezi bat egingo horrelako materialak jasotzeko, baizik eta boluntario bakoitzak bere konposta egingo du bere etxean eta ondoren konpost hori auto-kontsumorako erabili. Esperientzia hau, beraz, berdeguneren bat edo laborantza daukaten herritarrei dago zuzendua, baratzek edo lorategiak dituztenei.

Nola garatuko da?

Esperientzian aztertu nahi diren gaien arabera aukeraketa bat egingo da boluntario egokien bila. Boluntario hauei konpost egiteko tresnak banatuko zaizkie (konpostadorea, hondakinak gordetzeko ontzia, sardetxoa, etab.). Esperientzia hasi aurretik arratsalde bateko ikastaro labur bat egingo da konposta nola egiten den erakusteko. Eta azkenik esperientziak irauten duen bitartean, hilean behin jarraipen bat egingo da gora-beherak aztertzeko.

Zenbat iraungo du?

Bost edo sei hilabetetan konposta helduta dago eta erabiltzeko prest. Denboraldi honen ondoren eta ikusitakoa-



Interesatuak Sasietako bulegora deitu behar dute (943 16 15 55) beren datuak emateko apirilaren 10a baino lehen.

ren arabera proiektuak nola jarraituko duen aztertuko da.

Zeintzuk dira esperientzia honen abantailak?

Sasietaren helburu nagusienetako bat zabortegira ahal den zabor gutxiena ailegatzea da, ingurumena hobekien zaintzeko. Horregatik herritarrei ahal diren aukera gehienak ematen saiatzen da botatzen diren zaborrak gutxitu daitezen. Esperientzia berri hau oraindik gure eskualdean jorratu gabe dagoen bide bat da. Ondo irten ezker boluntario hauen zaborra %30ean gutxitu daiteke. Boluntario hauek abantaila zuzena izango dute bere kontsumorako ongarria lortuko baitute.

Zeintzuk dira boluntarioek bete behar dituzten baldintzak esperientzian parte hartzeko?

Lehenik eta behin konpostadorea jartzeko lorategi, baratza edo antzeko zerbaitekin eduki behar dute. Berdin da handia edo txikia izatea, baina lur-eremu bat beharrezkoa da; alde batetik, konpostadoreak lurarekin kontaktuan egon behar duelako eta bestetik, egindako konposta erabiltzeko aukera izan behar dutelako. Bigarrenik, hilean behin jarraipen bat egingo denez, Sasietako teknikariek egoteko eta datu-bilketarako prest egon beharko dute. Eta azkenik, Goierrikoa izatea eskatzen da.



Mendizabal, C.B.

ITURGINTZA - BEROGINTZA

Tel.: 609 614 552 (Iñaki) - 659 644 221 (Xabi)

Txindoki, 23 - 4. ezk.

ZALDIBIA

ZALBIDE
TOLARE SAGARDOTEGIA

Astearte eta asteazkenetako prezio berezia:

Bakailau tortila, txuleta, gazta, menbrilloa, intxaurrek eta Sagardoa txotxeik

14

© 943 65 21 76

ABALTZISKETA

Ekitaldi ugari antolatu da aurreko egunetarako

Apirilaren 6an, gauean, iritsiko da Korrika Goierrira

AEK-k antolatzen duen euskararen aldeko 13. Korrika apirilaren 4an abiatuko da Mauletik, apirilaren 13an Iruñean bukatzeko. Bitarte horretan, apirilaren 6an, Goierritik pasatuko da. Ezkio-ltsasotik sartuko da, 518. kilometroan, iluntzeko 20:30ean eta Goierriko hainbat herritan barrena 46 kilometro egin ondoren, Legorretan, 563. kilometroan, agurtuko dugu. Ondoko artikuluan, Korrika 13k prestatu duen idatzia azaltzen da oso-osorik, 'AEkrek herri bat geroa lantzen' izenburupean.

Euskal Herriak bere kultura eta hizkuntza berreskuratzeko lana ez da gaurkoa. Aitzitik, gaur egun daukaguna, eta etorkizunean Euskal Herria euskalduna erdiesteko esperantzak, gure aurrekoek egin zuten lan eskergan dute oinarri. 60ko hamarkadaren bukaeran eta 70eko hasieran, euskal kulturak berpizkunde izugarria izan zuen arlo guztietan: kantagintzan, literaturan, arte plastikoa, ikastolak eta gau-eskolak herri askotara hedatu ziren, euskara batua sortu zen... Kantagintzan, esaterako, argi dago gaur egun produkzio txukuna (kantitatez eta kalitatez) eta merkatu "normalizatu" baldin badaukagu, garai hartan egin zen esfortzuari esker daukagula. Izpiritu horri heldu nahi dio, hain zuzen ere, Korrika 13k eta argi utzi euskararen geroa gaur egun egi-



ten dugun lanaren baitan dagoela. Horregatik, garai hartan egin zenaren moduko beste jauzi bat egin nahi badugu, lana, ilusioa eta guztion esku-hartzea ezinbesteko lanabesak dira.

Korrikak izpiritu hori berreskuratzeko, berpizkunde horren protagonista izan zirenei omenaldia eskaini nahi die. Asko izan ziren garai hartan itzelezko lana egin eta Korrikaren gorazarrea merezi dutenak: horien artean, ez bakarrik baina, «Ez dok amairu» mugimendua. Korrika 13 honek «Ez dok amairu» sortu zuten haien kemena eta gogo gaurkotu egin nahi ditu. Jakina denez, izena Jorge Oteizak jarri zion, Azkuek Bizkaian jasotako herri ipuin batetik hartua, euskal kulturaren alorrean hamahiruaren adur gaiztoa hautsi eta pizkundeak aurrera joko zuela adierazteko. Gaur egun Korrikak gauza bera adierazi nahi dio gizarteari: ez dago hamahirurik, ez dago malefiziorik, patua saihesterik badago, oso egoera zailean eta diktadurapean euskal kanta-

Ibilbidea eta ordutegia

Ezkio-ltsaso: 20:29ean.

Ormaiztegi: 20:46ean.

Mutiloa: 21:12ean.

Segura: 21:25ean.

Idiazabal: 21:45ean.

Olaberria: 22:11ean.

Beasain: 22:29ean.

Lazkao: 22:51ean.

Ordizia: 23:09ean.

Itsasondo: 23:42ean.

Legorreta: 00:04ean.

gintzari eta euskal kulturari oro har berebiziko bultzada ematea lortu zuten moduan, geuk ere, eraso, zatiketa juridiko eta neurri murriztaile guztien gainetik, aurrera egiteko moduan gaude lanari ilusioz ekiten badiogu. Berpizkunde berri baten atarian jarri behar dugu euskal gizartea, gai gara-eta.

Geroa guk geuk erabaki ezean besteren batek erabakiko du, hots, euskararen etorkizuna euskaldunok erabaki

ezean huskeria litzateke. Etorkizuna orain astintzea, horixe da gakoa. Euskarak lege babes iraunkorra behar du lurralde osoan. Euskara normalizatu beharrezko dugu. Eta horretarako bi gauza dira ezinbesteko: alde batetik, euskararen gainerako hizkuntzekiko parekotasuna eta baltioa azpimarratzea, euskaldunon eskubideak bermatzea eta euskararen lurralde osoan eta arlo guztietan behar duen tokia aldarrikatzea, hots, ofizialtasuna. Bestetik, transmisioa ziurtatuko duen hizkuntz politika tinkoa bultzatzea, helduen euskalduntzea atzera pausoka ari den momentuotan helduak euskaldundu behar diren garrantzia azpimarratzea, gaurdanik urratsak emanez. Euskarak bizi duen egoeran ezin dugu belaunaldi bat galdutzat eman, tarteko belaunaldiaren euskalduntzeak baino ez baitu bizi iraupe nerako beharrezkoa den transmisioa ziurtatuko. Horregatik, helduen euskalduntzearen garrantzia eta beharra, gure esku dagoena eta gaurdanik posible dena. Eta lan horretan berebiziko eragilea izan den eta den AEKren beharra ere aldarrikatu nahi du Korrika 13k. Ildo horretan, azken aldian hainbat erasok kinka larrian jarri duten AEK denon lanari esker gaindituko duen itolarritik atera beharra ere azpimarratu nahi dugu. Ez dugu dudarik gure esku dagoena. Horregatik orain da garaia, eta horixe da Korrikak bultzatu nahi duena.

Korrika 13

Korrikaren inguruan antolatutako egitaraua



Martxoak 27, osteguna

Beasain: Mikel Telleria idiazabal dar kantariaren emanaldia Usurbe antzokian gaueko 9etatik aurrera.

Martxoak 28, ostirala

Itsasondo: Arratsaldeko 6,30etan txotxongilo emanaldia Ertotxen. Rosa Maria Martinezen 'Ipuin bat kontadazu' emanaldia. Gaueko 9,30etan herri afaria elkartean.

Martxoak 29, larunbata

Ormaiztegi: Arratsaldeko 4etatik aurrera umeen jolasak eta ondoren txokolatada. Mus txapelketa.

sak eta ondoren txokolatada. Mus txapelketa.

Apirilak 2, asteazkena

Beasain: 'Kirola egiteko 30 arrazoi' hitzaldia Udaletxeko batzar Aretoan iluntzeko 7etan.

Lazkao: Korrika txikia herriko plazan. Ondoren Maizpide eta Euskal Eskolak antolatutako jolasak.

Apirilak 4, ostirala

Segura: Korrika txikia herrian zehar, ondoren jolasak eta merienda.

Idiazabal: Korrika txikia herriko plazan. Patata tortila txapelketa. Ondoren afari merienda tortila eta txorixo egosi pintxoekin. Hau dena trikitixaz alaiturik eta baita herriko dantzarien saioa ere.

rrian zehar prestatutako ibilbidean. Ondoren merienda ederra eta jolasak ume guztientzat.

Beasain: Ikastetxe guztiek antolatutako Korrika txikia. Herrian zehar egingo den ibilbideari udaletxe aurrean egingo den ekitaldiarekin emango zaio amaiera.

Ordizia: Ikastetxeek antolatutako Korrika txikia herrian zehar prestatutako ibilbidean, eta baita J.M. Barandiaran plazan ere.

Apirilak 5, larunbata

Idiazabal: Mus txapelketa Mujika jatetxean arratsaldeko 4etan.

Beasain: Eskualde mailako Korrikaren aldeko elkarteen arteko korrika afaria. Afaria Udaletxe azpiko arkupetan.

Apirilak 6, igandea.

Korrika eguna:

Ormaiztegi: Arratsaldeko 6etan Korrika txikia herrian zehar. Korrika datorren artean giro ederra trikitilariak alaiturik.

Segura: Arratsaldeko 6,30etatik aurrera giro ederra

herriko plazan. Patata tortila txapelketa. Ondoren afari merienda tortila eta txorixo egosi pintxoekin. Hau dena trikitixaz alaiturik eta baita herriko dantzarien saioa ere.

Idiazabal: Arratsaldeko 6etatik aurrera Korrika kalejira herrian zehar herriko 'artisten' ekitaldiekin: korua, bertsolariak, abeslariak, txiste kontalaria, rock kontzertua etab. Ondoren Korrika datorren artean, afari merienda herriko plazan sagardo kupe-la eta trikitixaz alaiturik.

Lazkao: Korrikaren etorrera alaia txarangak alaiturik.

Beasain: Giro ederra arratsalde erditik aurrera Korrika kalejira alai batekin Korrika heltzen den arte. Herriko zenbait 'artisten' hainbat ekitaldi izango dira.

Ordizia: Arratsaldeko 6etatik aurrera Korrika datorren artean giro ederra herriko plazan, taloak eta sagardoa das-tatuz eta trikitixak alaiturik.

Itsasondo: Arratsaldean Korrika txikia egingo da jolas eta guzti. Iluntze partean Korrikari harrera eginez afari merienda izango da nahi duenarentzat.

VOLVO

TOYOTA



ŠKODA

Volkswagen taldea

ANZIZAR, S.A.

Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a

943 88 17 00 - 943 88 17 04

BEASAIN



aulia
TOLARE
SAGARDOTEGIA

Aulia-enea

943 80 60 66 LEGORRETA

PSIKOLOGI KLINIKOA



Helduen,
umeen, bikoteen
eta sexologi
tratamenduak

Jose Ramon Pato Prieto

Psikologian lizentziatua

Elkargokide zenbakia: E-2644

RPS: 420/95

JM Arana, 1 - 2. esk. esk.

AURRE ZITA

943 887 221

610 020 041

BEASAIN

Autowag, s.a.



Audi



943 888 254 943 888 266

Faxa: 943 888 105

N-1 errepidea, 419 Km

BEASAIN

Elorri Kultur Elkarteak Iparraldeko hainbat kiderekin antolatuta

Segurako VII. Iparra-Hegoa astea igande honetan bukatuko da

Euskal Herria gehiago ezagutzeko, ulertzeko, gerturatzeko eta batzeko helburuarekin antolatzen du Segurako Elorri Kultur elkarteak Iparra-Hegoa astea. Aurten VIII. ekitaldia izango da. Aurreko urteetan Nafarroa Beherea, Zuberoa eta Lapurdi izan ziren protagonista, eta aurten, Nafarroa izango da.

Segurako Elorri Kultur Elkarteak Iparraldeko hainbat lagunekin batera antolatutako astea da Iparra-Hegoa. Segurako Udalak, Segurako tabernak, Kutzak, Euskadiko Kutzak eta txakolindegiek ere beraien laguntza eman dute astearen antolakuntzarako.

Herriko plazan, azkeneko urteetako ohiturarekin jarraituz, karpa erraldoia jarriko dute antolatzailerak, eguraldiak ekintzak baldintza ez dituzan. Bertan taberna ere jarriko da.

Aste guztian zehar hainbat hitzaldi eta bertso saio izan dira. Kultur etxean Josu Goiaren eskulturen erakusketak ere izan dira. Astebururako, berriz, honako egitaraua antolatu dute:



Martxoak 28, ostirala: haurrei eskainitako eguna

● **Irunberri,** Tuterako Lodosako Ikastolako haurrak Seguran egunpasa izango dira. Segura Irratian saioa egingo dute.

● **15:30ean:** Segurako Herri Eskolako eta Nafarroako ikastolako haurren festa. Potxin eta Patxin pailazoak.

● **17:00etan:** Txokolate jana eta buru handiak.

● **19:30ean:** 'Euskararen egoera, berreskuratze bidean', mahaingurua, Kultur etxean. Parte hartzaileak: Mixel Etxeberri (Sehaskako lehendakaria) eta Irunberri, Tu-

tera, Lizarra, Lodosa eta Aezkoako parte hartzaileekin. Moderatzailea: Jon Abril.

● **22:30ean:** Kantaldia. Mila eta Ana nafar jotarak, Kontsesi eta Xabier Aezkoakoak eta Karmele aribetarra. Ambulance Sakanako taldea.

Martxoak 29, larunbata:

● **09:00etan:** V. Margo sari-keta, herrian zehar.

● **11:00etan:** Haurrentzako tailerra, karpa barruan.

● **Arratsaldean:** Kirol ekitaldiak, futbol eta pilota partidak, iparraldeko herri-kirolen erakustaldia.

● **18:30ean:** Margo lanen sari banaketa Kultur etxean.

● **Iluntzean:** Pintxo, talo eta nafar ardoen dastaketa. Kuxkutu txarangak alaituta.

● **Gauean:** Irats Berako taldearekin, kontzertua eta parranda.

Martxoak 30, igandea:

● **Goiz guztian zehar:**

Azoka: Nafarroako eta Segura eta Goierriko produktuen erakusketa eta salmenta.

Animazioak: Tuterako jolaldunak, gaiteroak, dantzariak, Tuterako 'Paloteau' dantzaren erakustaldia, Urruñako trikitaliak.

Sukaldaritza lehiaketa: Sukalkia prestatuko da (gixadue, xahalki saltsa).

Txakoli dastaketa.

Haurrentzat: Asto gurdian ibilaldiak.

● **14:00etan:** Gerizondoko ekitaldia: bertso, dantza eta hitzaldi laburra. Gonbidatu berezia: Mixel Etxeberri, Sehaskako lehendakaria.

● **14:30ean:** Bazkari herrikoia. Sukaldaritzako sari banaketa. Txartelak Elorripe tabernan daude salgai.

● **Ondoren:** Kuxkutu txarangak lagundutako kantuak eta Mutxikoak eta Larrain dantza.

ZUGAZTIBI
AHOLKULARITZA

zugaztibi@telefonica.net

Tel.: 943 16 23 86 - 943 16 15 58

Faxa: 943 16 15 58

Domingo Unanue plaza, 2 behe ORDIZIA

9:30etik 19:00etara
EGUERDIZ IREKITA

txekin

- Laborala
- Fiskala
- Kontablea
- Juridikoa
- Aseguruak
- Inmueble ajentzia

LOINATZ

Taberna
Jatetxea

Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak

943 88 20 07

Nagusia, 27

BEASAIN



Korrika, apirilaren 6an

Korrikaren 13. edizioa apirilaren 6an, igandea, gaueko 9:25ak aldera pasako da Seguratik. Mutiloa aldetik etorrira, herriko kaleak zeharkatu eta Idiazabal aldera joango da euskararen lekuko.



Orain bi urte Korrika Seguratik pasazeneko irudia.

Korrika txikia. Ostiralean, apirilaren 4an, 16:00etan herri eskolakoek korrika txikia burutuko dute herrian zehar. Ondoren, txokolate jana eta buruhaundiak izango dira. Korrikaren kantua abestuko da.

Patata tortila txapelketa. Korrikaren etorrera girotzeko, batzordekoek tortila lehiaketa ere antolatu dute. Apirilaren 6an iluntzean hasiko da eta taldetxoak osatuta, edozein herritarrek parte har dezake.

Atariak eta balkoiak dotoretzeko II. lehiaketa

Aurreko jaien burutu zen udaberriko lore eta landare azokarekin batera, Udalak eta azokaren antolaketa batzordeak, herriaren itxura hobetzen joateko, bertako balkoi eta atarietako lore eta landareen 2. lehiaketa antolatu dute. Txapelketak bi atal izango ditu: balkoi-leihoak eta atariak. Herriko etxe nahiz baserriak sartuko dira

lehiaketan. Erabakiak San Joanetan emango dira jakitera. Lore-landare eta hauen inguruko materialen erabilera eta etxearen itxura eta ingurura egokitzea dira baloratu diren gaiak. Sariak: atarietan lehenari 150 euro eta bigarrenari 100 euro. Balkoi-leihoetan lehenari 150 euro eta bigarrenari 100 euro.



Martxoaren 23an III. lore eta landare azoka jendetsua izan zen.

Gipuzkoako txapelketa. Antonio Agirrek 2. egin zuen Altxan, martxoaren 16an (48 birla).

● **III. Lore eta landare azokako zozketa** ibiltariko zenbaki saritua 1848 izan zen. Maria Jesus Mendizabal herritarri tokatu zitzaion.

● **Ardixarreneko erakusketak.** Martxoaren 21etik ikusgai dauden 'Ornodun mehatxatuen' (50 panel) eta 'Euskal Herriko landaretza' (40 panel) erakusketak Aste Santua pasatu arte egongo dira.

● Martxoaren 22an, goizaldean, **Beheko labea** (Nagu-

sia, 11) etxearen kale aldeko zatia erre zen.

● **Kirol eskolarra.** Mendi irteera apirilaren 6an, Larraitz-Alotza, goizeko 8:30ean plazaatik irtenda.

● **Odol ematea.** Apirilaren 12an, arratsaldeko 5etatik aurrera Osasun etxean. Herriko odol emaleen elkartekoek dei berezia egin nahi diete gazteei odola ematera ager daitezen.

● **VIII. Iparra-Hegoa:** Informazioa gehiago ondoko orrialdean.

Joseba Telleria

'Egunkaria aurrera'

'Egunkaria aurrera' lemapean herritar guztiei dei egiten zaie, apirilaren 2an, 19:30ean udaletxean burutuko den bilerazabalerako. Bertan, herrian gauza daitezkeen Egunkariaren aldeko ekintzak zehaztuko dira. Enekoitz Telleria Egunkariako langilea bertan izango da.

Labur-labur

● **Eneko Agirrezabalek** 4. postua lortu zuen 1.500 metroan pista estalian, martxoaren 16an, Zaragozako estatu mailako txapelketan.

● **Bola.** Goierriko txapelketa. Martxelino Agirre lehengo geratu zen Legazpin, martxoaren 22an (50 birla).

Futbola

Asteburuko emaitzak:
Erregionalak: Zestoa 3-1 Segura. **Jubenilak:** Beti Ona 1-2 Segura. **Kadeteak:** Aizkorri 2-2 Billabona. **Infantilak:** Aizkorri 3-1 Aloña Mendi.

Asteburuan etxean: Erregionalak: Segura-Urola, gaur, ostirala, 19:30ean. **Jubenilak:** Segura-Dunboa, zapatuan, 16:00etan.



Herritar ugari inaugurazioan

Martxoaren 16an burutu zen Nestor Basterretxearen eskularen inaugurazioa herritar ugari inguratu zen. Bertan, Nestor Basterretxeak bere sinadura ezarri zuen eskularen. Ekitaldi berean, herriko txistulariek eta koroak parte hartu zuten. Ondoren, hamaiketako izan zen bertaratuentzat.



Apirila kulturaren garaia

Bertso sariketako lehen saioa gaur Axarin

Gaur, ostirala, jarriko da abian Osinalde bertso sariketa. Azken urteetan egin izan den modura, aurretik hiru saio antolatuko dira beste hainbeste elkartetan, eta Gabiriako saiorako sei bertsolariak hautatzeko bidea eskainiko dute, bakoitzetik bina sailkatuz. Idiazabalgo Axari elkartean dago lehenengo zita gaur bertan.

Hogeita hamabigarren edizioa izango du bertsolari gazteentzako saio honek. Plazetan kantatzeko aukera gutxi duten bertsolariak jende aurrean aritu zitezen sortu zen Osinalde saria, besteak beste, eta bertsolari askok egin dute ospera jauzi Gabiriatik igaro ondoren. Sari honen izenak bertsolaritza munduan hartu duen hedadura da garrantziazaren neurle, bertsolari izan nahi duten gazteentzat etekin handiko proba bilakatu baita.

Bertso eskolen eraginez plazaratzen den bertsolari kopurua ikusita, ahalik eta parte hartze zabalena lortzeko hiru saioen formula jarri zuten martxan antolatzailerak. Hemezortzi gaztek dute, honela, kantatzeko aukera. Idiazabalgo Axari, Aztiriko Aztiri-bat eta Ordiziako Argiberri sariei esker. Jarraiko hiru asteburutan osotuko da lehen fasea. Hauetan lehen bi postuetan geratzen direnak apirilaren 26ko Gabiriako bertso-afarirako txartela jasoko dute.

Elkarte guztietan afariak antolatuko dira saioen aurretik, 20:30ak aldera. Hona hiru saioen leku-egunak eta bakoitzeko bertsolariak:

● **Axariko saioa**, Idiazabal (martxoaren 28an, ostirala): Manex Agirre, Ruben Sanchez, Iñaki Apalategi, Antton Fernandez, Beñat Lizaso, Egoitz Eizagirre.

● **Aztiri-bateko saioa**, Aztiri (apirilaren 5ean, larunbata): Iñigo Izagirre, Unai Muñoz, Gorka Ostolaza, Eneritz Zabaleta, J. Angel Aranburu, Jokin Labaien.

● **Argiberriko saioa**, Ordizia (apirilaren 12an, larunbata): Iñaki Gurrutxaga, Miren Artetxe, Oihana Bartra, Miel Angel Aierza, Xabier Astigarraga, Joseba Otegi.

Mus txapelketa

Zilarrezko ekitaldia beteko du aurten kaskoan egiten den mus txapelketak, Osinalde elkartekoak. Bihar larunbatean izango da, martxoaren 28an, eta izena emateko mahaia gaueko 9etan irekiko da. Hemezortzi urtetik beherako gazteei sarrerako diru gutxiago kobratuko zaie.

Herrian ohikoa denez, zortzi erregetara eta hiru usteletara jokatu da. Kanporaketa sistema bikote kopuruaren arabera zehaztuko da momentuan bertan. Bikoteko batek behintzat gabiriarra izan behar du txapelketa honetan parte hartzeko.

Sariak bestetan baino berezixeagoak jarri dituzte antolatzailerak, gainera. Lehendabiziko aldiz bikote irabazleak txapela bana bururatuko dute, besteen artean. Hona sariak: 1. 100 euro, trofeoa eta txapela; 2. 70 euro eta trofeoa; 3. 50 euro eta pattar botila; 4. 40 euro eta txanpain botila. Sari hauetatik kanpora geratzen diren bikoteen artean saskiak zozketatuko dira.

Korrika Andorran

Herriko hiru gaztetxo Andorrara joan ziren orain bi aste, kroserako afizioak bultzata Les Valls herriko nazioarteko krosean parte hartzeko. Leire Muruak, Iñigo Igartzabalek eta Beñat Maizek Euskadiko denboraldian egin duten lanarekin lortu dute Pirineotako herrialdean korrika egiteko txartela.

Lan ederra borobildu zuten martxoaren 16ko lasterketan. Infantil mailan mutilek 2.700 metroko zirkuitoa zuten, Leirek 1.850ekoa, eta sailkapenean Iñigok bosgarren, Leirek seigarren eta Beñatek bederatzigarren amaitu zuten. Ordiziako Txindoki atletismo taldean dihardute hirurek. Neguan krosean jardun ondoren, pistari ekingo diote orain.

Labur-labur

● **Haurrentzako pilota txapelketa** martxan da. Larunbatero jokatu da kanporaketako partidak Alkain-buru pilotalekuan, kultur astean finalen eguna iritsi arte.

● **Goierriko bola ligak** udal bolatokia bisitatuko du datorren apirilaren 5ean, larunbata. Goizez eta arratsaldean eman ahal izango da jardunaldian botatzeko izena.

● **Korrika 13** apirilaren 6an igaroko da gure herritik. Zumaragatik Ormaiztegirantz joko du, eta igande gaueko hamakak-gauerdia inguruan aurreikusten da pasako dela.

● **Euskal Herriko txirrindulari itzuliak** ere egingo du bisita. Apirilaren 7ko lehenengo etapan, astelehenean, Aztiriko mendatea aurrea eta Gabiria ondoren igoko dituzte. Aztiritik arratsaldeko hirurak aldera pasako dira eta herrigunetik ordu erdi bat geroago.

Aimar Maiz



Oianguren BHI: 25 urte irakaskuntzan

Badira 35 bat urte Ordizian bigarren hezkuntzako irakas-kuntza emango zuen ikaste-txe baten beharra ikusi zela. Proiektu desberdinak tarteko, hainbat eztabaida eman eta orain 25 urte 720 ikasleren-tzat lekua zuen ikastetxea eraiki zen Majori baserri in-guruko lurretan. Gaur egun txiki geratu eta handitze lane-tan dabilta. Mende laurdena pasa da harrezkero eta honen zioz hainbat ekintza antolatu dituzte Oianguren BHI-ko ikasle eta irakasleek. Nagu-siena apirilaren 12an Institu-tuan 25 urte hauetan ibilitako ikasle, irakasle, guraso eta langileen artean pilotalekuan lagun giroan egingo den baz-karia izango da.

60ko hamarkadan hasi zi-ren hezkuntza ertainaren be-harraz jabetuta udaletxe eta Hezkuntza Ministerioaren ar-teko lehen harremanak. 1966an Rafael de la Joya ar-kitekto madrildarrak aurkeztu zuen lehen eraikuntza proiektu-a. Ez zen aurrera atera, or-dea. 1974an, berriz, Juan Ma-nuel Encio Cortazar arkitekto donostiarrak egindakoa onar-

tu zen. 28 milioiko aurrekon-tuarekin hasi ziren lanak eta frutarbolak zeuden leku har-tan oinplanta hirukia zuen eraikina egin zuten. 1976ko irailean amaitu ziren obrak eta 76/77 ikasturtean Bea-saingo Institutupean lau talde hasi ziren.

77/78 ikasturtean jada be-re kabuz hasi zen. 271 aritu ziren orduan eta gehienak ordiziarrek baziren ere Zaldi-bia, Legorreta, Itsasondo, Arama, Altzaga eta Gaintza-korik ere bazen. Hasierako urteetan "A" zen hizkuntza eredu bakarra baina laster, 82/83 ikasturtean, "D" eredu-a sartu zen. Pixkanaka "A" eta "B" ereduak kentzen joan di-ra eta egun "D" ereduan ari dira ikasle guztiak.

95-96 ikasturtean Derrigo-rrezko Bigarren Hezkuntza ezarri zen. Honekin ikasle kopuruak gora egin zuen eta honekin batera baita irakasle-en kopuruak ere. 00/01 ikas-turtean Haur Hezkuntzako Goi Mailako Heziketa Zikloa jarri zen martxan, hezkuntza eskaintza aberastu eta bide berriak ireki.

Errugbikoek igoera fasea jokoa

Denboraldiko liga amaitzeko partida bakarra geratzen den honetan, rugby taldekoek ziurtatuta dute igoera fasea jokatze-ko beharrezkoa den txartela. Denboraldia play off hauei begira prestatu dute eta honetarako errefortzuak ere iritsi zaizkie. Lehendik bazen argentinarr bat eta orain beste bi ki-de izango ditu, Pablo Cesar Cordoba eta Gerando Blanch.

Bestalde, igandero hor biltzen dira 25en bat gaztetxo Tre-bijano rugby zelaian. 6 urteko umeak ere badabiltzala, eta rugbykoek orain artean agertu ez diren gaztetxo guztiak ere animatu nahi dituzte kirol hau ezagutzera.

Korrika badator

Apirilaren 6an pasako da Korrika 13 Ordiziatik gaueko 11ak aldera. Aurretik ikastetxeetako haurrentzako Korrika txikia ere izango da. Berau apirilaren 4an, ostirala, ospatuko da. Igande gauean pasako denez Korrika handia, Korrika batzor-dekoek jaialdia antolatu dute arratsalderako. Enparantza na-gusian bildu eta bertan talogileak, sagardoa, txaranga eta bes-telakoak izango dira. Gazteek tiralineasetan ibiltzeko aukera ere izango dute. Korrika CAFetik etorriko da eta herriari itzulia emanda N-1 zaharretik Itsasondori pasako zaio leku-koa.

Mus txapeldunak

Argi Berri elkarteke Migel Atorrasagasti eta Manolo Goros-pe izan dira XXIV. elkarte arteko mus txapelketako irabazle-ak. Azarin jokatu den txapelketan Boxingeko Alejo Garcia eta Carlos Garcia izan ziren finaleko aurkariak. Emaizta 3-2. Elkarte txapelduna Jai Alai.

Bertso afaria Argi Berrin

Gabiriako Osinalde Sarirako baliagarria izango den kanpora-ketetako bat Argi Berri Elkarteak jokatuko da datorren apiri-laren 12an. Oraingoa VI. Argi Berri saria izango da jokoa eta Gabiriako finalean aritzeko txartelaz gain oroigarria jaso-ko du afalkideentzat bertsolaririk onena izan den bertsola-riak. Protagonistak Orioko Iñaki Gurrutxaga, Hendaiako Mi-ren Artetxe, Aizarnazabalgo Miel Anjel Aierza, Xabier Asti-garraga mutrikuarra, Eneritz Zabaleta baionarra eta Zizurkil-go Joseba Otaegi izango dira. Aurkezle gisa Igor Eguren he-rritarra. Afarian parte hartu nahi duenak Iñaki Tabernan 18 eurotan salgai daude txartelak.

Gaztetxearen XVII. urteurrena

Martxoak 28, ostirala: 17:30ean umeentzako jolasak. 20:30ean poteo herrikoia eta ondoren afari autogestionatua. 23:00etan kontzertua (P.L.T + Guda Spuriu).

Martxoak 29, larunbata: 10:00etan mendi irteera. Bazkaria gaztetxean eta arratsaldean hip-hop, graffitiak... 23:00 kon-tzertua (Kañeria 13 + Sobredosis de Mistol + ?).

Martxoak 30, igandea: 18:00etan antzerkia eta amaiera tra-karekin.

Aitor Calvillo

Egunkariaren aldeko herri batzordea abian

Euskaldunon Egunkariaren aldeko herri batzordea sortu da gure herrian ere, itxi berri duten egunkariaren aldeko kanpainaren barne. Batzorde hau irekia da, edozein herritarrek har dezake parte, eta astelehenero elkartuko da udaletxean iluntzeko 8etan.

Informazio hau jasotzeko orduan Euskal Herriko 145 herritan abian ziren antzeko batzordeak. Kanpainaren helburua herri bakoitzean bat sortzea litzateke. Dena den, batzordeon ideia ez da berria, Ainara Gorostizu Egunkariko langile herritarrak sarrera hitzaldian adierazi zuen bezala, "Euskaldunon Egunkaria" bera ere horrelaxe sortua izan baitzen duela 13 urte. Batzordearen helburuei buruz, iraunkortasuna aipatu zuen Ainarak. Izango dituen fun-

tzioak berriz, herrian informazioa zabaltzea, joan den astean buzonada egin zen herri guztian zehar egoera azalduz; ekitaldi desberdinak aurrera eramatea eta harpidetza bideratzea. Momentuz harpidetzen afera hau da garrantzi gehien duena. Hori bideratze aldera mahaiak jarri ziren hiru auzoetan joan den igandean. Egun 15 harpidedun daudela Ataunen jakinaz, digu Ainarak. Helburua 45 harpide izatera iristea litzateke. Jakina denez, "Euskaldunon Egunkaria"ren itxierak euskal kultura eta euskaldunoi bete-betean eragiteaz gain, Goierriarraren aurreko zenbakian azaltzen genizuenek, ekonomikoki ere izan du bere eragina. 149 lagun, horietarikk herritarrak 2, Ainara bera eta Koldo Al-

Euskal karneta (EHNA) egiteko aukera

Ataungo Bai Euskal Herriari taldearen ekimenez, datorren apirilaren 6tik aurrera Euskal Herriko Nortasun Agiria (EHNA) Ataunen bertan egiteko aukera izango da. Duela bi urte pasatxo herrian egindako kanpainan jasotako 850 sinadurei esker lortu da ekimen hau aurrera eramatea. Beren hasierako helburua EHNA Udaletxetik tramitatzea omen zen, baina Udalbiltzak bultzatutako mozioari Udaletxean ezetza ematearen ondorioz, "ez zelako gure konpetentzi barruan sartzen", sinadura bilketa bideratu behar izan omen zuten. Azkenean, behintzat EHNA egiteko aukera izango dela eta festa antolatu dute datorren apirilaren 6rako, igandea. (Nork ez ditu ikusi A-6 kartelak herrian zehar?) Egun horretarako egitarauaren barne ekitaldia, poteoa, bazkaria Oargin, jokuak ondorenean eta egunari amaiera emateko kontzentrazioa antolatu dituzte. Bide batez, eskerrak eman nahi dizkizue Ataungo Bai Euskal herriari taldekoek, herriko elkarte guztioi eta era berean, zuen sinadura emanez kanpainan parte hartu zenuten herritarroiei. Interesa duzenok adi egon, datozen egunetan izango da informazio gehiago eta.

Haur kantari txapelketa 2003 Ataunen

Haur Kantari Txapelketaren Gipuzkoako kanporaketa eta finala Ataunen ospatuko dira aurtengoan. Bai kanporaketak eta finala ere egun berean ospatuko dira, apirilaren 12an, larunbatean, arratsaldeko 6etan Herri Antzokian.

Txapelketa honetako parte hartzaileak kantari amateurak dira, inoiz euskarazko kaset zein diskorik grabatu ez duen edonork, bakarka zein taldean, har dezake parte. Parte hartzaileak adinaren arabera bi taldetan banatuta daude, 6-10 urte bitartekoak batetik eta 11-15 urte artekoak bestetik. Emaldiak bi sail izango ditu: 'A capella' edo ahots hutsez jardun beharko dute lehenik eta ondorenean, musikaren laguntzaz. Sail bakoitzean hiru modalitate desberdinduko dira: Banaka, binaka eta taldeka eta bi kantu motat abestuko dituzte: kantu ezaguna eta kantu berria edo norberak sortutakoa. Modalitate bakoitzeko 1 eta 2. sailkatuak izango dira saria jasoko dutenak. Sari banaketa egin ostean, epai-mahaiak saridun artetik 3 aukeratuko ditu, edozein sail eta modalitatetik eta, 3 hauek eta entzulegoak aukeratutako (entzulegoak bere lehen saria erabaki dezake), Getxon ekainaren 14ean ospatuko den Euskal Herriko finalera joango dira. Ekimen hau Euskal Kantuzaleen Elkarteak antolatua eta, BBKk eta gure kasuan, Ataungo Udalak babestua izan da.

dabe, lanik gabe gelditu dira. Batzordean aipatu zenez, bestalde, beharrezko ikusten da bere sorreran "Euskaldunon Egunkaria"ren ezaugarriak biltzen zituen 11 puntuak berrestea. Hala nola, Egunkaria euskaltzalea da. Nazionala eta baterakoa (anitz), zabal, independentea alderdi politikoengandik eta erdarazko medioengandik, ez-instituzionala, diruz lagundua (instituzioetatik aparte etorriko diren diru laguntzak), euskararekiko militantea, profesionala

eta berria. Horietxek ziren eta dira "Euskaldunon Egunkaria"n bere egiten dituen ezaugarriak. Egunkariaren aldeko Herri Batzordetik egitasmo honekin ados zaudetenoiei eta, finean euskara eta euskal kulturaren alde lan egiteko prest zaudetenoiei dei egiten dizute astelehenetan, iluntzeko 8etan udaletxera hurbiltzera. Euskaraz irakurtzeko eta bizi-tzeko eskubidea guztiona baita.

Agurtzane Bikuña

Garizuma kanpaina 2003

Azken urteotan egin den eran, Ataungo hiru parrokiak Karitasek Garizuma kanpaina antolatu du. Aurtengo kanpainaren barne 2 proiektu daude: Elizbarrutiak; Eritrea eta Chiaparen aurrera eraman nahi dituen egitasmoak batetik eta, bestetik Ecuadorren dagoen Rakel Kaiero herritarren proiektu berri bati laguntza ematea. Parrokiatan egingo den diru bilketaz gain, Kutxan ere kontu bat bada dirulaguntza emateko.



Korrika apirilaren 6an iritsiko da

Korrikaren 13garren edizioa apirilaren 6an, igandea, gaueko 11ak aldera iritsiko da Idiazabala. Segura aldetik etorriko da euskararen aldeko korrika herrira. Hura iristerako, Idiazabalgo Korrika Batzordeak hainbat ekitaldi antolatu ditu apirileko lehendabiziko astebururako.

Apirilaren 4an, ostirala, arratsaldean Herri Eskolako ikasleek Korrika txikia egingo dute. Ondoren Eskolako Guraso Elkarteak prestatutako merienda eta Gazte Asanbladakoek antolatutako jolasak egingo dira. Larunbatean, apirilak 5, mus txapelketa jokatu da Mujika jatetxean. Izena emateko epea egun berean 15.30ean bukatuko da.

Korrika iristen den egunerako ere antolatu dituzte ekitaldiak. Arratsaldeko

6.00etan herriko dantzariak saioa eskainiko dute. Ondoren Korrika poteoa egingo da herriko tabernetan eta iluntzerako jaialdia dago antolatuta plazan. Gauean, afaria egingo da (norberak eramandako janariarekin). Afalondoran, 23.00ak aldera espero da Korrika Idiazabala iristea.

Axari bertso sariketa

Larunbat honetan, martxoak 29, iluntzeko 8.30etan ospatuko da Axari bertso sariketa. Aurtun, pilotalekuan izango da afaria eta ondoren saioa.

Idiazabalgo saioan, 6 bertsolari hauek arituko dira: Manex Agirre (Aramaio), Ruben Sanchez (Gasteiz), Iñaki Apalategi (Beasain), Antton Fernandez (Urretxu), Beñat Lizaso (Azpeitia) eta Egoitz Agirre (Orio).



Atleta gazteak

Martxoaren 8an Lasartenen jokatuako Gipuzkoako alebin mailako txapelketan bi herritarrek postu onak lortu zituzten. Julen Goiak Gipuzkoako txapeldun izatea lortu zuen mutiletan eta Maialen Garciak 7. egin zuen nesketan. Txapelketan proba konbinatua egin behar zuten: lehenik abiadurakoa, 60 m. eta ondoren pisu jaurtiketa eta luzera jauzia. Hiru probetako emaitzaren arabera egiten da sailkapena.

Idiazabalgo saioa Osinalde sarirako baliagarria izango da. Azken saio hori Gabirian jokatu da apirilaren 26an.

Ibilaldien ibilaldia

Izen hori jarri dio Mendi Elkarrekeak igande honetan hasi eta ekaina bitartean, mendi irteerak eta lehiaketa uztartuko dituen ekimenari. Hainbat herritarrek proposatutako 4 mendi irteera egingo dira datozen hilabeteetan. Ondoren, ibilaldi horietan parte hartzen dutenek, beraien ustez, irteera interesgarri eta egokiena zein izan den aukeratu beharko dute.

Lehendabiziko irteera igande honetan, apirilak 30, egingo da Bakaiku eta Abartzuza aldera. Bigarrena, apirilaren 27an Araotz ingurura; hirugarrena maiatzaren 18an Salvada mendizerrara eta azkena ekainaren 15ean Segura ingurura.

Irteera hauetan edonork

har dezake parte.

KZ gunea

KZ gunean hamabost egunean behin aldatuko da ordutegia aurrerantzean. Martxoaz geroztik egun erdiz dago bakarrik zabalik KZ gunea. Aurrerantzean hilabete erdia goizetan egongo da zabalik eta beste erdia arratsaldetan.

Martxoaren 31tik apirilaren 11ra bitartean arratsaldeko 4:00etatik 8:00etara erabilgarri izango da. Apirilaren 14tik maiatzaren 2ra goizetan 9:00etatik 13:00era irekiko dute.

Martxoaren 31tik apirilaren 11ra arte ondoko ikastaroak emango dituzte: 20 ordukoa (16:00etatik 20:00etara) eta Nagusientzako ikastaroa (18:00etatik 20:00etara).

Aste santuko oporrak direla eta, KZ gunea itxita egongo da apirilaren 17tik 21era arte.

Xabier Urteaga

Pottoka
KAFETEGIA

● Plutxo hotz eta beroak
● Ogitariekoak

Legazpi kalea. 3
ORDIZIA

GESTORIA BIOK

ASEGUROAK

- * Aholkularitza laborala eta fiskala
- * Jubilazio, bizitza, etxebizitza eta kotxe aseguruak

☎ 943 88 44 00 - 943 88 12 58
Goierrri, 12
ORDIZIA

Egunkaria aurrera, bai euskarari

Euskaldunon Egunkaria itxi zutenetik hainbat ekimen burutu izan dira Euskal Herri osoan. Gure herrian ere, Egunkariari elkartsuna adierazteko asmoz, eta askatasunak jasandako erasoak salatze asmoz lehen unetik Egunkariarekin bat eginik ekimen bereziak bultzatu izan dira. Gure herrian ere horrela gertatu da, Egunkariaren Batzorde Eragilea sortu da.

Batzordea astelehenetan kultur etxean elkartzen da 19:00etatik aurrera. Batzorde Eragilea osatzerako orduan, egunkariatik adierazi bezala, herriko sektore guztiekin kontatzea garrantzitsua izan da eta horrela bideratu izan da, beti ere, parte hartu nahi duen herritar edonork atek zabalik ditu.

Orain artekoan laburbilduz, Batzorde Eragileraren egiteko nagusiak jarraian agertzen direnak izan dira:

- Informatzea, herrian egunkariaren inguruko gertakizun

nen informazio zabaltzea herritarrengan ahalik eta zabalaren iritsiz.

- Mobilizazioak, egunkaria itxi zutenetik deialdia orokorrekin bat etorritik kontzentrazioak egin ziren.

- Martxoaren 13, Egunkariarekiko elkartasun eguna. Gure herrian hiru ekitaldi nagusi burutu ziren: goizean ordubeteko lan geldialdia, arratsaldean berriz, lehenik elizan otoitzaldi hausnarketa eta jarraian kontzentrazioa. Azpimarragarria da aipatu eguneko ekitaldietan herritarren parte hartzea.

- Harpidetzak. Egunkariak aurrera egin dezan, harpide berriak egitea ezinbestekotzat jotzen zen. Hau bideratu ahal izateko batzordeak herri mailan lan berezia egin izan du, eta emaitza onak lortu izan dira. Harpide egin nahi duen herriko taberna eta dendetan jarritako orrietan lor dezake informazioa.

- Egunkariaren festa eguna,

Odolemaile elkartearen eskertza

Otsailaren 25ean herriko mediku kontsultorioan egin zen azken odol ateratzean 58 odolemaileek parte hartu zuten. Azpimarragarria eta zoriontzeko modukoa da azken dei honetan parte hartu zuen aipatu odol emaleetatik, sei odol emaile berriak izan zirela.

Oraingo odol ateratzean ere Elozegi ardotezia, Murua harategia, Deba harategia eta Iñaki Autoserbitzua, Euskadiko Kutxa, Lazti garraioak, Otordu, Medikuko kontsultorioa eta Udala izan zituzten laguntzaile. Beraz, aipaturiko guztiei elkartearen izenean eskerrik beroena bidaltzen diegu, baita odol ateratzean parte hartu zuten odolemaile guztiei, bai herritar eta baita Gabiria eta Ezkio-Itsasotik hurbildutakoei ere.

Aitziber Murua

aurrerantzean zehatzago jakitera emango da aipatu eguneko prestatuko diren ekintzen berri. Aste buru batean zehar gure herrian egunkariaren festa eguna antolatzea da helburua adin guztietako herritarren partaidetzarekin.

Korrika 13

Apirilaren 6an, gaueko 22:00ak aldera iritsiko da gure herrira 2003. urte honetako Korrika. Aurreko edizioetan bezala oraingoan ere korrikaren inguruan hainbat ekitaldi antolatu dira horretarako osatu den batzordeak bideratuta. Aipatu ekintzak bi asteburuetan burutuko dira.

Martxoaren 29an, larunbata, herriko enparantzan hainbat ekitaldi egingo dira. Arra-

tsaldeko 16:30etan Korrika 2003 mus txapelketa herrikoia, eta izen emateak bertan egingo direlarik. Ordu berean haurrentzat jokuak, aipatu bi ekintzak herriko enparantzan izango dira. 18:00ak inguruan guraso elkartearen laguntzaz prestatutako txokolatada.

Korrika igaroko den egunean berriz, hau da, apirilaren 6, igandea, arratsaldean haurrentzat korrika txikia burutuko da herriko kaleetan zehar. Iluntze aldera berriz herriko tabernetan zehar poteo herrikoia eta jarraian 20:30ak aldera herriko enparantzan luntxa. Eguneko ekitaldiak herriko trikitilariak alaitu dituzte.

herri txiki batean hain beharrezkoa den bilgunea berpizteaz.

Apirilaren 8an, astearte, arratsaldeko 19:00etan, egingo dute inaugurazio ekitaldia tabernan bertan. Trikitilariak eta barrikotea izango dira bertan eta jende guztiari egiten diote deialdia bertara hurbiltzeko.

Toki Alai jatetxean eguneko menuak eskainiko dituzte urte guztian, eta asteburuetan menu bereziak dastatzeko aukera izango da. Horiez gain, kaxuelitak, otartekoak eta plater konbinatuak ere eskainiko dituzte.

Udari begira terraza egokia du, eta giro jatorra eta euskalduna.

Aramako taberna laster zabalik

Araman dagoen Toki Alai jatetxeak apirilaren 8an zabalduko ditu berriz ere atek, denboraldi bat itxita eman

ondoren. Oraingo honetan Ordiziako Elorza familiakoak arduratuko dira ostalua eramateaz, eta Arama bezalako

Egunkariaren aldeko mus txapelketa bihar jokatuko da

Bihar, hilak 29, arratsaldeko 16:30etatik aurrera jokatuko da Zaldibiako Zubi-buru elkartearen 28. Mus txapelketa azkarra, Egunkariaren alde. Dakizuenetz, txapelketa hau otsailaren 22an jokatzeakoa zen, baina egun horretan Egunkariaren aldeko manifestazioa zegoenez Donostian, mus txapelketa atzeratzea eta orduan ateratako diru guztia Egunkariaren proiektu berriari ematea erabaki zuten juntako kideek.

Hala, prestakuntza berriari ekin zioten elkarteko ordezkariak, eta kartel berriak egiteaz gain, deialdi zabal eta berezia egiten diote muslariari bihar musean jokatzeraz Zaldibiara gertura daitezen.

Arratsaldeko 16:00ak baino lehen eman behar da izena Zubi-buru elkartearen bertan, eta bikoteak 24 euro ordainduko beharko du. Jokoak 4 erregetara, 6 hamarrekotako 3 ustelera izango dira eta epaileen erabakia mugigaitza izango da. Honakoak dira lehen zortzi bikoteek eskuratuko dituzten sariak: irabazleak, 900 euro, txapela ta garai-kurra; bigarrenak 450 euro

eta garaikurra; hirugarrenak 240 euro; laugarrenak 125 euro eta hurrengo laurak 60na euro.

Zubi-buru elkarteko kideak eta Zaldibiako Egunkariaren aldeko herri batzordeak egun horretan musean jokatzeraz azaltzeko deia egiten diuzue.

Falta direnen aldeko triki poteoa gaur

Gaur iluntzeko 7:30ean, plazan, triki poteoa egingo da Askatasunak antolatuta. Pasa den asteartean, martxoaren 25ean hain zuzen ere, Juan Mari Olanoren urte betetze eguna zela eta, herrian falta diren guztien aldeko poteoa egingo da. Gainera, ostiralero bezala, 20:00etan Herri Eki-menak antolatutako kontzentrazioa egingo da plazan.

Infantil neskak

Zaldibiako infantil neskak Gipuzkoako areto futboleko txapelketa jokatzen ari dira. Lehen partidak martxoko azken bi aste hauetan jokatuko dituzte. Hurrengo partida Zestoako taldearen aurka izango dute.



XIII. Dantzari Txiki Eguna, apirilaren 6an

Apirilaren 6an, igandea, Zaldibian XIII. Dantzari Txiki Eguna izango da. Zaldibiako Iztueta dantza taldeaz gain, ondorengo hauek izango ditugu: Jakintza dantza taldea (Ordizia), Oi-Arin (Lazkao), Aurtzaka (Beasain), Ereintza dantza taldea (Errenteria), Gure Txoko (Bera), eta Legorretako eta Gabiriako dantza taldeak. Hau izango da Dantzari Txiki Eguneko egitaraua:

Goizean:

11:00etan: Dantza taldeak herriko plazan elkartuko dira. Ondoren dantzari guztiei hamaiketako eskainiko zaie.

12:00etan: Dantzarien desfilea hasiko da.

13:00etan: Jaialdia herriko plazan.

14:00etan: Bazkaria Zaldibiako Dantza Taldearen haurren etxeetan (norbaitek dantzariak etxera bazkatzeraz eraman nahi baditu Kultur Etxera dei dezala).

Arratsaldean:

16:30ean: Haurrentzako ikuskizuna.

Oharra: eguerdian izango den dantzarien desfilea dela eta, 12:00etatik 13:00era Zaldibiako kalea kotxeentzat itxita izango da.

Eduarne Sorraluze

Garagardo festa apirilaren 4, 5 eta 6an

Martxoaren 1ean bere burua aurkeztuko zuen Herriari Leial plataformak Garagardo Festa antolatu du apirilaren 4, 5 eta 6erako. Marka eta mota guztietako garagardoak egongo dira hurbiltzen direnen zintzurak bustitzeko. Apirilaren 4an, arratsaldeko 18:00etan egingo da aurkezpen ekitaldia eta azokaren irekiera. Larunbat arratsaldean AHTari buruzko hitzaldia izango da. 18:00etan berriro zabalduko da azoka, eta iluntzean pilota partidua izango da. Gauean sorpresa. Igande arratsaldean garagardoa dastatzeko aukera egongo da berriz, eta ondoren agur ekitaldia.



GENERALI
Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20
☎ 943 88 87 02
BEASAIN



izal

IMAZ eta CONTRERAS

PINTURA eta PAPERGINTZA

☎ 943 187 049 - 943 187 045
Ondramuño baserria IDIAZABAL

Erlezain eguna apirilaren 6an

Zegamako Udalak eta Gipuzkoako Erlezain Elkarteak V. Erlezain Eguna antolatu dute apirilaren 6rako.

Apirilaren 6an, Erlezain Eguna ospatuko da Zegaman; besteak beste, Gipuzkoako V. Ezti lehiaketa, Argazki Lehiaketa eta Eztiz eginiko Gozogintza Lehiaketa antolatu dira. Guzti hau, ezti dastaketa eta pastel dastaketarekin borobilduko da. Bestalde, talogile, bertako produktuen salmenta eta txistulariak ere izango dira goizean zehar. Er-

lezain Elkarteak, urtero erlezain bat omentzeko duen ekintzaren barnean, aurten, Joxe Albizu zegamarra omenduko dute.

Apirilaren 6aren aurretik, mundu mailako erlezain eza-guna den Pajuelo jaunak hitzaldia eta ikastaro praktikoa bat emango du apirilaren 5ean. Xabier Kintana, erlezain eta euskaltzainak ere, erlezaintzak euskaldunon sinismenean izan duen garrantziari buruz hitzaldia emango du apirilaren 3an.



Euskara eguna

Joan den, martxoaren 20 eta 21-ean XVIII. Euskara Eguna ospatu zen Zegamako Aitzuri He-

rri Eskolan. Herri Eskolako haur eta irakasleek lan galanta egin zutela ikusi zen antzeztu zituzten antzerki eta girotzeko jarritako marrazki handi haiek ikusita. Aurten, gainera, zine zaharra jubilatuko dute eta gimnasio berria egin ziren antzezpina, eta oso leku ederra suertatu dela esan behar horrelako lanetarako ere.

Obrak martxan

Herriko zenbait puntu desberdinetan hainbat obra berri hasi dira. Intxaustiko zubiaren eraberritzea, duela hilabete bat edo hasita badago ere, obrak martxa onean doaz eta iraila aldera amaitzea aurreikusten da, 7 hilabeteko exekuzioa aurreikusita baitute.

Ostatu aurrea adokintzeko lanak hasi berriak dira, Santa Barbara kaleari segimena emanaz, Udaletxeko plazaren kantoiraino adokintzeko asmoa dago. Obra hauek apirilean amaituko dira. Bestalde, Txarape eta Alderdi Ederren arteko orubean ere, Udalak bultzaturiko lurrazpiko garajeak eraikitzen hasiak dira eta hauek ere sei hilabete buruan amaituko dira. Azkenik, eliza aurreko plazako kioskoaren sapaia ere konpontzen ari dira, urteen poderioz oso hondatuta baitzegoen.

Apirila ekitaldiz beterik

Apirilak 2, asteazkena

9:00etan, Jubilatuen bidaia Iratxera.

Apirilak 3, osteguna

19:00etan: Hitzaldia Udaletxean: "Erlezaintza euskaldunon bizitzan, sinismenean, ohituretan eta mitologian". Hitzlaria: Xabier Kintana Erlezain eta Euskaltzaina.

17:00etan: Kultur Etxean, Eskolako akordeoiko ikasleen entzunaldia.

Apirilak 5, larunbata

16:00etan: Erlezainei zuzendutako hitzaldia, Aitzuriko gimnasioan, Pajuelo erlezain aditu eta ezagunaren eskutik.

19:00etan: ezti dastaketa praktikoa eta irekia Pajueloren eskutik.

16.30ean: Santa Kruz probaren irteera.

Apirilak 6, igandea

Erlezain eguna Ikusi 9. orria.

8:00etan: Mendi irteera Amezti Mendi Elkartekoekin. Irteera: Etxegarate, Itsusburu, Sarobe, Urdiain.

Apirilak 8, asteartea

18:00etan: Kultur Etxean, trikitixa eta panderoko entzunaldia.

Apirilak 10, osteguna

16:30ean: San Martin Parrokian, Musika Hezkuntzako ikasleen emanaldia, arratsaldean.

Apirilak 12, igandea

Oñatitik Arantzazura ibilaldia, 'Bide berean senide' lemapean.

Eduarne Albizu



JOS-BEL

ILEAPAINDEGIA

© 943 88 82 52

Urdaneta, 15

ORDIZIA

www.peluqueriajosbel.com

ANNE
MÖLLER
TRAITEMENT SUISSE
kosmetika

Alayte Cruz
bisuteria

zutikako solariuma



Jose Agustin Jauregi

Tel. eta Faxe: 943 886 558
Poltsikoko telefonoa: 616 698 288



- Pankartentzat errotulazio bereziak
- Fatxadako toldoak
- Motorizatuak eta automatikoak
- Estaldurak eta itxidurak
- Toldoak alokairuan
- Kamioientzako toldoak: Tir toldoak
- Toldo korrederoen prestaketa
- Errotulazio eta inpresioa lonetan eta zurrunetan

ERAKUSKETA:

Lorategiko eta
terrazako altzariak,
kolore ezberdinetako
aluminio lakatuan

Zubi-Erreka Industrialdea, 42
toldosagustin.com

LAZKAO

e-posta: auxkin@toldosagustin.euskalnet.net



GARMENDIA

Egur tratamenduak



*Udaberriarekin batera
pipia lanean hasten da
eta zuk ez utzi zure
altzarietara iristen*

**ORAIN DA
GARAIA!**



Aurreikusiri



Hezetasuna
Eguzkiaren eragina
Pipia

Barruko egurretan:

Habeak

Parketa...

Kanpoko egurretan:


Leihoak

Ateak

Jardineko altzariak...

Sendatu

**Pipiak jota dauden
altzariak**



Mallutz industrialdea, 25-26

ORDIZIA

Tel. : 943 161 032 / Faxe: 943 160 842

E-mail: garmendia@garmendiatejas.com • www.garmendiatejas.com



Korrika 13 badator

Beasaindik, apirilaren 6an, igandean pasatuko da XIII. Korrika gaueko 10:30ak inguruan. Hori dela eta, Beasaingo Korrikaren aldeko batzordeak, beste erakunde batzuekin batera, ondorengo egitaraua antolatu du:

Martxoak 30, igandea: Diru-eskea kalean Korrika XIII-ren alde. Beste hainbat gauza ere salgai: Korrika laguntzaile txartelak, elastikoak, etab.

Apirilak 2, asteazkena: Arratseko 7etan, Udaletxeko Batzar Aretoan, Luis Mari Zulaika Isastiren hitzaldia. Gaia: 30 arrazoi kirola egiteko izen bereko liburuaren ildotik. Udal Euskaltegiaren programazioko ekintza da.

Apirilak 5, larunbata: Arra-

tseko 8etan, Elkarteen arteko sukaldaritza lehiaketa. Gaueko 9etan, Loinazko San Martin plazapean, Goierri eskualdeko afari herrikoia, lehiaketarako prestatutako jakiak jateko. Afarirako txartelak, Loinatz, Basaka eta Arrano tabernetan eta Goiztiri-AEK Euskaltegian salgai. Prezioa: 10 euro.

Apirilak 6, igandea: Arratsaldean, txaranga, dantzariak eta kale-animazioa herriko erdiguneko kaleetan zehar. Gaueko 10:30etik aurrera, XIII. KORRIKA Antzizartik behera sartuko da herrian eta Senperetik Lazkaorantz irtengo da. Gero, Lazkaotik Senperen barrena, CAF zeharkatu eta Lazkaibartik pasatuz joango da Ordiziarantz.

Loinatz jaiak zehazten doaz

Beasaingo jaietarako bi hilabete falta da eta dagoeneko batzordea osatu eta lehen bilerak ere eginak dituzte herriko elkarteek eta baita erabaki batzuk hartu ere. Horietako bat danborradari dagokiona da. Aurten Ezkiaga auzotik ateratzea dagokio danborradari gaueko 10:30ean. Beste urteetan bezala kantinerak ateratzea borondatezkoa izango da. Ordena honetan irtengo dira elkarteak: Beti-Bizi, Bareak, Murumendi, Loinatz, Alfil, Aitz-Zorrotz, Aizkorri eta Usurbe. Karroza egitea Usurbe elkartari suertatu zaio aurten.

Mozorro egunean, berriz, ez da desfilerik egingo.

Jaietako egitarauaren azala aukeratzeko lehiaketa

Udaleko Kultur Batzordeak lehiaketa antolatu du 2003ko Loinatz-Jaietako egitarauaren azala aukeratzeko. Oinarriek diotenez, edozeinek har dezake parte lehiaketa honetan eta edozein kolore edo eratako lanak onartuko dira. Lanen neurriak berriz, 45 X 65 zm. edo tamaina proportzionalekoa izango da. Hori bai, lehiaketako gaia, Beasaingo Loinatz-Jaiak izango da eta lanetan, 'Beasain, 2003ko LOINATZ JAIK'. Maiatzaren 30etik ekainaren 8ra testua idatzirik agertu beharko da. Lanak apirilaren 11a baino lehen aurkeztu beharko dira Udaletxeko Hiritarren Harrera Bulegoan. Saria 318 eurokoa izango da.

Beasain Jaietan Urtekaria

Loinatz Jaietan, lehen larunbatean, kalean izaten dugu Beasain Jaietan Urtekaria. Beti Bizi Elkartea arduratzen da aldizkari hau aurrera ateratzen. Aurtengoa gainera 25. urtea izango da. Aldizkari hau kalera irten dadin, ordea, aurrez egin behar izaten da lana eta dagoeneko herritar guztiei luzatu zaie gonbitea Beasainen inguruan artikuluren bat idazteko edo argazkiak aurkezteko ere. Herriko jende gaztea animatu nahi dute parte har dezaten. Apirilaren amaiera baino lehen aurkeztu beharko dira lan hauek. Lanak disketean aurkeztea eskatzen dute.

Dantzari txikiaren entsaioak

Loinatz Jaietan haurrek aurrekuan partehartzeko entsaioak hasi dira dagoeneko. Bost eta hamabi urte bitarteko haur eta gaztetxoek parte har dezakete. Entsaioak Alkartasuna Lizeoan dira astelehenetan arratsaldeko 5:30ean.

'Beasain esku eskuan. Leiho bat iraganari' liburua salgai

Martxoaren 11an, Martin García Garmendiaren 'Beasain esku eskuan' bildumako 5. alea aurkeztu ondoren, jada salgai dago Artane liburudendan, geltoki pareko Ion Aranburu eta plazako prentsa saltokietan. XIX. mendearen amaieran Beasaingo hirigunea osatzen zuten 40 eraikinen izenak, kokapena eta historia erakusten zaigu liburu honetan.

Mendiko argazki lehiaketako sariak banatu dituzte

Argizpi Argazizale Elkartek eta Aizkorri Mendizale Elkartek antolatutako IV. Mendiko Argazki lehiaketako lehen saria

Igor Etxaberentzat izan zen. Bigarren saria J.A. Gurrutxagarentzat eta hirugarren saria berriz, Juli Lasak eraman zuen. Heritarren artean banatutako saria Iban Toledorentzat izan zen.

Amuarrain arrantza

Amuarrain arrantza garaia hasi dela eta, Aitz Zorrotz Elkartek zozketak egingo ditu Lareo eta Arriaran urtegiaren arrantza egiteko baimenak lortzeko. Zozketak egun hauetan egingo dira. Apirilak 1, 15 eta 29an, maiatzaren 13 eta 27an, ekainaren 10 eta 24an eta uztailaren 8 eta 22an. Izen emateak arratsaldeko 7ak baino lehenago egin behar dira.

Nekane Altuna

Erregionalak kopan

Bi urtetan erregionalen maila geldirik edo desagertuta egon arren, aurten izan dute aukera berriro ere Harizti-Handiko larunbat arratsaldeak alaitzeko. Zuzendaritza berria dagoenetik, gerora lanak aurreratzeko hari dira eta hortik dator kio erregionalen maila hau berriro ere herri mailan ateratzea. Jende oso gaztez osatua dago taldea, denak ere lazkaotarrek eta atzeragoko urteetan jokatuak. Lehenengo urtea dela ikusiz ezin, ezta gauza askorik eskatu. Hortik dator lehen liga bukatu eta azken aurreneko tokian gera-

tu direla baino orain buru-belarri kopa jokatzen hasi dira, eta aurreko partiduan denek lanak bilduz beste emaitza hobeagoak izango direla seguru daude. Urrutira joan gabe, aste bukaera honetan izan dute lehen partidua eta garai-pen batekin hasi dira. Emaitza 4-1-ekoa izan zen. Aurkaria Gazteak taldea zuten. Liga aurrera doan heinean jendetza kopurua ere nabarmenagoa dela garbia da. Beraz, oraindik ikustera joan ez diren denek deialdi hau luzatzen zaie.

Aitor Tello

Denok korrikarekin

Aurten ere gure herritik pasatuko da korrika. Apirilaren 6an izango da gaueko 11:30ak aldera eta herri barrutik pasatzeko asmoa dago. Obrak direla eta, herria hankaz gora dago, baina, egun horretarako zubia irekia izango dela ziurtatua dago. Ordurik aproposena ez bada ere, AEKren eskutik gonbitea luzatzen da jendearen partaidetza ekintzak duen adinako erantzuna eman dezan. Egun honetarako beste ekintzak batzuk ere izan dira. Hasteko, joan zen ostiralean taloen salmenta izan genuen herriko plazan eta honi bizi pixka bat emateko txarangaren doinuekin batera ume eta ez hain umeek dantza egiteko aukera izan zuten. Beste ekitaldi bat aipatzearen, apirilaren 4an, Anari abeslariaren kontzertua izango da Dorrao tabernan.

Herriko txikienak

Hauek ere beraien eguna izango dute korrikaren egunean. Beste urteetan ikastolatik irtetean joko mordo pila izaten dituzte prespaturik Maizpide euskaltegikoek. Aurten ere beste horrenbeste egingo da, baina korrika gauz iristen denez, plaza inguruan saio txiki bat egingo dute beraien erreleboak eta dena emanez. Beste sorpresaren bat ere izango dute. Beraz, gurasoan animatu nahi dituzte beraien umeak bertan uzteko eta ahalik eta gehien inguratzeko.



Harizti-Handi futbol zelaian berrikuntzak egingo dira.

2002ko aurrekontuak

Aurreko urteko udal aurrekontuaren balorazioa egin ostean 560.000 eurotako onurak lortu dira. Honen baikortasuna ikusiz, erdi bidean edo denetik baieztatu gabeko proiektuetara zuzentzeko aukera eman die. Diruaren zatirik handiena Harizti-Handi futbol zelaia zuzendua egongo da. Hasiera batean atletismo pista bat egin nahi da. Honek lau kale izango ditu zelai guztiaren ertzean. Bestalde dutxa berriak jarriko dira bertako ekintzetako eta aurrerago, zelaia artifizialezkoa eta grada batzuk jarriko dira. Hori bai azken biak geroago. Kaleen hobekuntzetarako ere 60.000 eurotako dirutza emango da. Gauza txikiago batzuk ere egingo dira; liburutegietako eskaintza hobetzea, informatika hobekuntzak... Uhaitz kalean dagoen elektrizitate etxola zahar hori ere bota egingo da lur azpitik korronte guztiak pasatzeko.

Areria Zutabea udal hauteskundeetara aurkeztuko da

Otsailean aurkeztutako Areria Zutabeak beharrezko ikusten du Lazkaoko ezkertiar eta abertzaleen aukera present egotea. Eskubide hori bermatua izan dadin beharrezko urratsak tramitatzeari ekin dio. Prozedura horretan lehen zeregina sinadura bilketa izango da. Areriak Lazkaon errolatuta dauden pertsonen sinadurak behar ditu, gutxienez 100. Sinadura bilketa apirilaren 2tik 16ra egingo da udaleko idazkariaren aurrean. Areriak herritarrei dei egiten die egun horietan udaletxetik pasa eta sinadura emateko. Guztiaren berri emateko martxoaren 28an Kultur etxean Areria Zutabearen batzarra egingo da.

lues rothers
BEASAIN

JAUREGI
TOLDOAK s/l
Tfnoak.: 943 88 02 43
943 88 01 33
BEASAIN

GABINETE PSIKOLOGIKOA
ARPE
Pedro Jose Landa Gutierrez
PSIKOLOGOA
Kol. Zkia. E - 1687

- * Depresioak
- * Harremanetarako arazoak
- * Beldurrak
- * Antsiak
- * Segurtasun eza

Ordua eska ezazu konpromezurik gabe
943 674 619 Nafarroa Etorb. 25 - 1. ezk BEASAIN



Iritsi da Udaberria



Udaberriarekin batera, KMK03 moda berria iritsi zaigu. Kolore bizitasuna da ezaugarri nagusia. Galtza bakoak, marradunak, belaunetarinokoak, elastiko koloredunak, galtzerdi freskoak, poltsoak, zapiak... Aukera izugarria aurtengo udaberri-rako. Zahar eta gazte, emakume eta gizon, denontzat uda-

berri eta uda parterako jantzi ikusgarriak. Ez egon besteez erositako zain, hurbildu Lazkaora, astegunetan arratsalde izaten gara eta larunbatetan goiz eta arratsalde. Bertara etortzeko biderik ez baduzue, herriz herri ibiliko gara denda tikia gainean dugula. Zatoz lehenbailehen!

Lazkao Txikiri kantari

Apirilaren 2an beteko dira hamar urte Lazkao Txiki handia hil zitzaigula. Haren heriotzaren hamargarren urteurrena eta kilometroak 2003 nolabait uztartu nahian, hain maitea izan dugun eta dugun Lazkao Txiki omenduko dugu apirilaren 4an, iluntzeko hamar eta erdietan Lazkaoko Joxe Miel Barandiaran kiroldegian. Bertso jaialdi ikusgarria izango dugu, beraz, erosi sarrerak apirilaren laua baino lehen. Horra bada, Lazkao Txikiri kantari jaialdiaren nondik norakoak:

Bertso jarri musikatuak: Ekaitz eta Irati Goikoetxea eta Laida Senar piano-jolea. Aitor Sarriegi eta Iñaki Apalategi, Zador eta Gorosti txalapartariak.

Bat-bateko saioa: Joxe Agirre, Jexux Mari Irazu, Xebastian Lizaso, Mikel Mendizabal, Iñaki Murua, Jokin Soroazabal.

Gai-jartzaille: Inazio Usarralde.

Sarrerak salgai: 14 urtetik beherakoek: 4 euro (aurrez erosiz gero 3 euro). 15 urtetik gorakoek: 8 euro (aurrez erosiz gero 6 euro)

Saltokiak: Ataungo Bittor jatetxea, Beasaingo Loinaz, Ordiziako Etxaniz eta Lazkaoko Gerriko taberna.

Antolatzaileak: Kilometroak 2003 eta Goierriko Euskal Eskola.

Agenda

Apirilak 1, asteartea: Antzarren XI. Bertso-paperean banaketa. Ikastolan, arratsaldean.

Apirilak 3, osteguna: Lazkao Txikiri bertso jarriak kantari. (Lazkao Txiki bertso paper lehiaketako sorta sarituen aukeratzeta). Maizpiden iluntzeko 9etan.

Apirilak 4, ostirala: Goierriko bertsolari gazteen saioa; Aitzol Munduate, Iban Urdangarin, Haitz Aierbe, Oier Zurutuza, Jokin Murua, Mikel Asurabarrena. San Benito Ikastolako areto nagusian eguerdiko 14:30ak aldera.

Apirilak 4, ostirala: Lazkao Txikiri kantari bertso jaialdia. Joxemiel Barandiaran kiroldegian, iluntzeko 10:30ean.

Apirilak 6, igandea: Meza nagusiaren ondoren. Lazkao Txiki zelaian, igande eguerdiko ekitaldia: dantzariak, lore eskaintza, salda probaketa eta bertsolariak: Patxi Iraola, Florentino Goiburu, Xabier Zeberio eta Euxebio Igartzabal.



RENAULT
AGENTZIA

LAZKAO
GARAJEA

Senpere Industrialdea
☎ 943 882442 - 943 888901
Faxa: 943 888901
LAZKAO

KONTSULTORIO
MEDIKU-KIRURGIKOA

Goierritarrentzako mediku zerbitzu espezializatuak

Ordua eskatzeko tfnoa: 943 08 55 60 Faxa: 943 08 55 61
Nafarroa Etorbidea, 25 - 2. **BEASAÍN**

ZINEA

ITSASONDO:

Apirilak 7: 'El expreso de medianoche', 22:00etan, Ertotxen.

ORDIZIA:

Martxoak 28: 'Teh good girl', 22:15ean, Herri Antzokian.

Martxoak 29: '8 millas', 19:30ean eta 22:15ean, Herri Antzokian.

Martxoak 30: 'Spy kids 2', 16:45ean, '8 millas', 19:30ean eta 22:15ean, Herri Antzokian.

Martxoak 31: '8 millas', 19:30ean, Herri Antzokian.

Apirilak 5: 'Darkness' eta 'Ghost Ship', 22:15ean, Herri Antzokian.

Emakumezkoen filmeen zikloa: ORDIZIA:

Martxoak 28: 'The good girl', 22:15ean, Herri Antzokian.

Apirilak 11: 'Frida', 22:15ean, Herri Antzokian.

Apirilak 12: 'Frida', 22:15ean, Herri Antzokian.

Apirilak 25: 'Mi vida sin mi', 22:15ean, Herri Antzokian.

GOIENIZ

Apirilak 3: 21:00etan, Usurbe antzokian.



'Nubes pasajeras' Aki Kaurismäki (Finlandia, 1996)

Lan honetan langabezia geratu den bikote baten gorabeherak kontatzen dira. Egoera honek pertsonengan duen eragin bortitza adierazi eta pasarte gazi-gozo batzuk bizi ondoren, nolabaiteko argia agertuko da eta etorkizunerako itxaropena zabalduko da; laino arteko ostarteak, izenburuari jarraituz. Berezkoa duen finlandiar umorea utzi gabe, eragin sozial sakoneko gaia jorratu du Kariismakik, langabeziarena, baina egun konpromisozko zinemaren arloan nagusi diren frantziar eta britainiar joeretatik urrun; hau da, drama gordina saihestuz eta modako komedia sozial arinean erori gabe.

ORDIZIA:

Martxoak 28, P.L.T. eta Guda Spirium, 23:00etan, Gaztetxean. Gaztetxearen XVIII. urteurrenaren harira.

Martxoak 28, Ama eta Sport Billy, 22:30ean, Sugaar tabernan.

Martxoak 29, Kañeria eta Sobredosis de Mistol, 23:00etan, Gaztetxean. Gaztetxearen XVIII. urteurrenaren harira.

Apirilak 4, Tenoklok, 22:30ean, Sugaar tabernan.

Apirilak 11, Exhale, 22:30ean, Sugaar tabernan.

antzerkia

ORDIZIA:

Apirilak 4, Bucanero taldearen 'Jánsel y Ponsél' antzezlan, 22:15ean, Herri Antzokian.

BEASAIN:

Apirilak 11, Animalario taldearen 'Tren de mercancías' antzezlan, 22:15ean, Usurbe Antzokian.

hitzaldiak

SEGURA:

Martxoak 28, 'Euskararen egoera berreskuratzeko bidean' izeneko hitzaldia eskainiko du Mixel Etxeberri Sehaskako Lehendakariak, 19:30ean, Kultur Etxean.

BEASAIN:

Apirilak 7, Klarinete lauokotearen kontzertu didaktikoa, 18:00etan, Udal batzar aretoa.

LAZKAO:

Apirilak 4, Anariren kontzertua Dorrao tabernan.

ZEGAMA:

Apirilak 3, 'Erlezaintza euskaldunon bizitzan, sinismenean, ohituretan eta mitologian' izeneko hitzaldia eskainiko du Xabier Kintana euskaltzainak, 19:00etan, Zegamako udaletxean.

Apirilak 5, 'Ezti dastaketa praktikoa' izeneko hitzaldia eskainiko du Antonio Gomez Pajuelo irakasle adituak, 19:00etan, Zegamako udaletxean.

musika

SEGURA:

Martxoak 28, Mila eta Ana nafar jotarak, Kontsesi eta Xabier Aezkoakoak eta

Karmele aribetarra. Ambulance Sakanako taldea. 22:30ean.

Martxoak 29, Mirats talde beratarraren kontzertua, gauean.



EGUZKI
INPRIMATEGIA

Nafarroa
Etorbidea, 9

☎ 943 88 94 82

BEASAIN

Aseguru korreduria

SEGURUEN PROFESIONALAK

MUNDUATE, S.L.

Elosegi, 1- behe

Tfnoa.: 943 88 86 20

Tfno. mugikorra: 609 49 14 41

Faxa: 943 88 91 18

LAZKAO

bertsoak

LAZKAO:

Apirilak 4, 'Lazkao Txikiri kantari' bertso saioa. Bertso jarri musikatuak: Ekaitz eta Irati Goikoetxea eta Laida Senar piano-jolea. Aitor Sarriegi eta Iñaki Apalategi, Zador eta Gorosti txalapartariak. Bat-bateko saioa: Joxe Agirre, Jexux Mari Irazu, Xebastian Lizaso, Mikel Mendizabal, Iñaki Murua eta Jokin Sorozabal. Gai jartzaila: Inazio Usarralde. 22:30ean, Joxemiel Barandiaran kiroldegian.

Apirilak 4, Goierriko bertsolari gazteen saioa: Aitzol Munduate, Iban Urdangarin, Haitz Aierbe, Oier Zurutuza, Jokin Murua, Mikel Asurabarrena. San Benito Ikastola-ko areto nagusian, eguerdiko 14:30ean.

Apirilak 6, Patxi Iraola, Florentino Goiburu, Xabier Zeberio eta Euxebio Igartzabal ariko dira Lazkao Txiki zelaian, meza nagusiaren ondoren.

IDIAZABAL:

Martxoak 28, Manex Agirre, Ruben Sanchez, Iñaki Apalategi, Antton Fernandez, Beñat Lizaso eta Egoitz Eizagirre, Axari elkarteak.

AZTIRIA:

Apirilak 5, Iñigo Izagirre, Unai Muñoa, Gorka Ostolaza, Eneritz Zabaleta, J. Angel Aranburu eta Jokin Labaien, Aztirian.

ORDIZIA:

Apirilak 12, Iñaki Gurrutxaga, Miren Artetxe, Oihana Bartra, Miel Anjel Aierza, Xabier Astigarraga eta Joseba Otegi, Argiberri elkarteak.

Tobera musika eskolako emanaldiak

Tobera musika eskolak hainbat emanaldi prestatu ditu egun hauetarako. Zegaman eta Seguran izango dira emanaldi hauek.

Zegaman:

Apirilak 3, osteguna: arratsaldeko 5etan Tobera Musika Eskolako akordeoiko ikasleen entzunaldia Zegamako Kultur Etxean.

Apirilak 8, asteartea: arratsaldeko 6etan Tobera Musika Eskolako trikitixa eta panderoko ikasleen entzunaldia Zegamako Kultur Etxean.

Apirilak 10, osteguna: arratsaldeko 4:30ean Tobera Musika Eskolako Hizkuntza Musikaleko ikasleen erakustaldia Zegamako Parrokian.

Seguran:

Apirilak 10, osteguna: arratsaldeko 6etan Tobera Musika Eskolako akordeoiko ikasleen erakustaldia eta musika tresan ezberdinetan dabiltenen kontzertua Segurako Aterpetxean.

pailazoak

SEGURA:

Martxoak 28, Potxin eta Patxin pailazoak, 15:30ean, Segurako Herri Eskolan.

mendi irteerak

ORDIZIA:

Martxoak 30, Ordiziako Mendizaleak taldeak antolatuta, herriko gaztetxoan XXXVIII. ibilaldia.

Apirilak 6, Ordiziako Mendizaleak taldeak antolatuta, Arlaban-Alabita-Kurtzebarri ibilaldia.

Apirilak 13, Ordiziako Mendizaleak taldeak antolatuta, Argiñano Lizarraga mendi irteera.

SEGURA:

Apirilak 6, Larraitx-Alotza mendi irteera.

erakusketak

ORDIZIA:

Martxoaren 14tik apirilaren 4ra: Rosa Maria Valbuenaren erakusketa Barrena Kultur Etxean.

GOARDIAKO FARMAZIAK

Astegunetan: Jauregi (Santa Maria, 2 - Ordizia). 943 160949.

Martxoak 29-30: Arriola (Plaza Nagusia, 10 - Ordizia). 943 880628.

Apirilak 5-6: Urbizu (Kale Nagusia, 8 - Beasain). 943 880232.

Apirilak 12-13: Atorrasagasti (Bustuntza auzoa, Ordizia). 943 882934.



Xenkegi
DEKORAZIOA


Tel: 943 889 113 Faxa: 943 028 429

xenkegi@euskalnet.net

Senpere Merkatalgunea, 25

**Sukaldeak
Bainuak
Ateak
Zoruak
Armairuak**

BEASAIN



Etxebizitzak

salgai

- ➔ Etxebizitza salgai Beasaingo Garmendia Otaola 5ean, 3.solairua eskuina. 112 metro koa-droko azalera erabilgarria, eta 24 metro koa-droko ganbara.
- ➔ Korellan (Nafarroa) etxea salgai. 646971488.
- ➔ Bi etxe eta bajera salgai Zegaman. 948180842.

➔ Idiazabalen etxebizitza salgai. Inguru berria dauka. Sukaldea, egongela, bainugela, hiru logela eta trasteroa. 699822469.

➔ Idiazabalen etxebizitza salgai. 80 metro koadro, 3 logela, 2 bainugela, egongela, sukalde handia, terraza eder bat, garajea eta ganbararekin. 943370335 / 647142700.

errentan eman

- ➔ Garagartza plazan pisua alokatzen da. 670086942.
- ➔ Urbasako mendilerroan etxea alokatzen da asteburu, zubi eta oporretarako. 9434533981.

konpartitu

- ➔ Madrilan ikasleekin etxea konpartitzen dugu. Mutil ez erretzaileak. 914595390.

Garajea

salgai

- ➔ Beasaingo Erauskin kalean 100 metro koa-droko garajea salgai. Prezio interesgarria. 603931449.
- ➔ Beasaingo Nafarroa Etorbidea 33 kalean 30 metro koadroko lokala salgai. Beharrezko instalazioak dauzka, erakuntza eginda dago. Prest irekitzeko. 943882106 / 943806012.

errentan eman

- ➔ Lazkaon lur azpiko bi garaje alokatzen dira Jose Lasa kalean. Iluntzean deitu. 943885574.

Animaliak

salgai

- ➔ Zaldia hazitarako 'kaneloa'.salgai. Deitu gauetan. 943888682.
- ➔ Bi txekor limousin 10 hilabetekoak salgai. Oso onak. 943800490.

Bestelakoak

salgai

- ➔ Karreratako txirrindua salgai. Koadro sarritu neurria 54. Urdin kolorea. Osagarriak: Shimano 600. Gurpilak: Rigida-Shimano 600. 7 pinoi. Kubiarta estuak. Pedal Shimano automatikoa. 300 euro. 651705011. Ion.
- ➔ Yasmin de Takamine etxeko kitarra elektro akustiko beltza salgai. Egoera oso onean. 540 euro. 658751647.

➔ Terreno bat erosi nahi da. Ordeka samarra, eta borda badu hobe. Lazkaomendin, Gaintzan edo Zaldibian. 943161828.

➔ Urbasako kanpinean karabana salgai, bere abantzearekin. 943187314.

➔ Sutarako egurra salgai. Bi metrotan moztua. Arratsaldeko 20:00etatik aurrera deitu. 943880905.

➔ Litera salgai 90cm-koa, eskailerakin, burdinazkoa, zuria. Bi edredoi eta bi koltxo opari. Estreinatzeko daude. 601 euro. 943881380.

➔ Bi akumuladore berogailu salgai. 300 euro. 652755173.

➔ Egurrezko atea erdi prezioan. 652755173.

➔ Masajeak emateko makina salgai. 652722638.

➔ Ampeg amplifikadore salgai. 150W-ko potentzia, combo. 659754483.

➔ Pigni markako akordeoia salgai. Intere-satuek deitu telefono honetara: 943886120 (20:30etik 22:00era).

➔ Renault Megane Coupe autoaren lau llanta kubiartekin salgai. Egoera onean. Beste auto batzuentzat baliagarriak. 943885815 (gauz).

➔ Ezkon jantziak salgai. Emakumezkoaren eta gizonezkoarena. 44 neurrikoak. 619364749.

erosi

➔ Bigarren eskuko eskaladarako materiala erosiko nuke. Sokak, arnesa eta expresak. 659034934.

errentan eman

➔ Ordizian garaje itxia alokatzen da. 653011954.

➔ Garraio titulua alokatuko nuke. 645715578.

galdutakoak

➔ Sakeleko telefono koloreduna aurkitu da Larraitzen. Galdetu Beasaingo udaltzaingoa.

Ibilgailuak

salgai

➔ Peugeot 309 Vital markako autoa salgai. SS-AP. Garajea egona. 2.400 euro inguru. Prezio negoziagarria. 609030621.

➔ Benimar markako karabana salgai. Ekonomikoa. 943028494.

➔ Gas gas markako trialera salgai. 250cc-koa. 660459458.

➔ Citroen Berlingo autoa salgai. SS-AY. Ondo zaindua. 605772624.

➔ Volkswagen Polo 1.9. D autoa salgai (6 urte), Egoera onean. 659987308.

➔ Nissan Almera sport 2.200 diesel inyeccion autoa salgai. 10.000 km. 2 urte ta erdi. Garantia. 649324459.

➔ Kawasaki GPZ 500 motorra salgai. Egoera onean, neska batek erabilia. 646272522.

Lana

eskaintzak

➔ Neska eskaintzen da goizetan haurrak zintzeko. 679556500.

eskaerak

➔ Promozioetarako langileak behar dira, 18 urtetik 45 urte bitartekoak. Soldata lehiakorra. Interesatuak dei ezazue 616941892.

➔ Pertsona bat behar da Beasainen haur bat zaindu eta etxeko lanak egiteko. 25 urtetik gorakoa. 655733823.

➔ Kamarera bat behar da asteburuetan lan egiteko. Euskalduna. 943880044.

➔ Ogia banatzeko balanatzaila behar da. 943084189 / 651706818.

➔ Goierri erreabilitazio zentzurako fisioterapia behar da. 943881271.

➔ Neska euskalduna behar da Ataungo taberna batean arratsalde ordu batzutan lan egiteko. 943180019.

➔ Neska euskalduna behar da Gaintzan haurrak zaintzeko. 943889307/943888574. Gaez deitu.

➔ Ordiziako taberna batean lan egiteko tabernariak behar dira. Interesatuok bidali zuen curriculumak eta argazkia Ordiziako 134 Posta Kutzara.

➔ Ileapaindegirako neska behar da. Kurrikuluma bidali Beasaingo 32 posta kutxara.

➔ Neska euskalduna behar da Lazkaoko taberna batean lan egiteko arratsalde. 649052806.



Langai

Euskal Lan Zerbitzua
Eusko Jaurlaritza

Lan eskaintzaren bat interesatzen bazaizu,
erreferentzia hartu eta eskatu informazioa.

Goierriko Herrien Ekintza
943 884 401

GARABIZALEA

Goierri. Erref. 97684/2

EMAKUMEZKO LANGILEA

Tolosan. Erref. 98662/1

INFORMATIKA IRAKASLEA

Tolosaldean. Erref. 98564/2

IDAZKARIA-ADMINISTRARIA

Donostialdean. Erref. 98045/4

MANTENIMENDUAN ARITZEKO

Tolosan. Erref. 98043/2

ZERBITZARIA

Tolosaldean. Erref. 97551/9

SUKALDARI LAGUNTZAILEA

Tolosaldean. Erref. 97550/6

ITURGINA

Tolosan. Erref. 97423/6

INJENIARI TEKNIKO MEKANIKOA

Donostialdean. Erref. 96585/3

INJENIARI TEKNIKO ELEKTRONIKOA

Donostialdean. Erref. 96581/3

INKESTATZAILEA

Olaberria. Erref. 98048/4

ZUHAIZKI

S. A. L.

ZURGINDEGIA



✕ LEIHOAK, ATE-
AK eta abar

✕ ESKAILERAK
NEURRIRA



Cuatrocientos Industrialdea, 1
Txarama Auzoa
20491 LEABURU
Tfnoa.: 943 67 36 11
Faxa: 943 67 36 55

IKASTEK AKADEMIA

Joan Iturralde, 5 BEASAIN
☎ 943 160 120

ESKOLA LAGUNTZA

- ✕ Lehen hezkuntza, DBH
- ✕ Batxilergoa
- ✕ Moduluak, Zikloak
- ✕ Unibertsitate-maila

GOIERRIKO UNIBERTSITATEA

- ✕ Marrazketa teknikoa
- ✕ Fisika
- ✕ Matematika
- ✕ Teknologia

TAILERRAK

- ✕ Ortografia, Idazmena
- ✕ Irakurmena, Ulermena
- ✕ Matematika, Kalkulua

IKASKETA ARAZOAK

- ✕ Atentzioa
- ✕ Ohiturak, Metodoak
- ✕ Emozioen kontrola

www.ikastek.net
ikastek@ikastek.net

URBITARTE

tolare
sagardotegia



Txotx denboraldia zabalik

Tel.: 943 18 01 19

Ergoiena Auzoa

ATAUN



Beasaindarrak 1953. urtean

Karmen Arsuagak utzitako argazkia Tolosako Berazubín ateratakoa da. 1953ko Gipuzkoako futbol txapelketako finala ikustera joandako beasaindarrak ageri dira bertan. Partidua 2-1 irabazi zion Beasainek Elgoibarri.

Argazki zaharrak behar ditugu: GOIERRITARRAN argitaratzeko argazki zaharren bat baduzu
Ordiziako Santa Maria kaleko 4.enean gaude edo 943 889 612 telefonora deitu. Argazki guztiak itzultzen ditugu.



ILEAPAINDEGIA

Zatoz eta aurkitu
zure estiloa
Tratamenduak
Kortekak
Koloreak
Moldeatuak

ESTETIKA ZENTRUA

Biodepilazioa:
Zirkulazioarentzat, barizentzat eta
hanka nekatuentzat onuragarria
Ilea ahultzen du
Azala garbitzen du
Aurpegiko tratamenduak
produktu naturalekin

Oriamendi kalea, Etxuri etxea BEASAIN Tel./Faxa: 943 88 32 52



GERTU

enpresa aholkulariak - abokatuak

ENPRESA BERRIAK SORTZEKO LAGUNTZA-KURTSOA

DOHAIN

noiz: apirilak 28, 29, 30
ordutegia: 18:00 - 20:00
izen ematea: 943 16 21 92 (Idoia)

BEASAIN
gertu.asesoria@terra.es
www.gertuasesores.com

Kale Nagusia, 2
Telf: 943 16 21 92
Faxa: 943 88 36 33

IBAI ONDO



ARROZTEGIA

Logela, egongela eta sukaldeko altzari
nahiz osagarrietan aukera paregabea

Altzariak neurriari


Mota guztietako aroztegi lanak

PVC eta aluminiozko leihoen fabrikazioa

☎ 943 16 40 40 faxa: 943 16 47 47

Poltsikoko telefonoa: 639 631 640

Antzizar-Katea, 5 BEASAIN



Bordatu mota
guztietan berezitako
mertzeria: kortinak,
etxeko arropa, haurrak,
anagramak, txapelak...

Josteko makinen
salmenta eta konponketa

Zure argazkiak gurutze-puntuan

LINUE ZEGAMAKO artisau ehungintza



Tel.: 647 628 187

Esteban Lasa, 3

BEASAIN

AMEB



Sagardotegia

☎ 943 16 25 23

Zubierreka, 9

LAZKAO

X i o r

i l e a p a i n d e g i a

Koloreztatua

Solariuma

Motza

Rizatua

Lisoa

Orraztu
Brontzeatu
Makillatu

Nafarroa etorbidea 53 20200 BEASAIN Tf: 943 88 23 40

eta

gero

ahaztuko

ez duzun

Oroitgarri bat

atera.Argazkia

Argazki

Mirés
foto

Ezkontzak

Digitala

Rebelatuak

Argazkimuntaiak

Jaunartzeak

Moda

Interiorismoa

Erretratuak

D.N.I.Argazkiak

Publizitatea

Berrukituak



Nafarroa etorbidea 53 20200 BEASAIN Tf: 943 88 25 25

O

e

o s k a r b i

— o i n e t a k o a k

udaberria 03

